

# UROLALDEKO LEHEN SAIAKERAK

1974 — EKAINAK, 16

XXXIV - garren urtea 598 - Zenbakia

## zeruko ARGIA

BANAKOLA: OKENDO, 22 - DONOSTIA - TEL. 426666 - PREZIOA 8 PEZETA

**“Euskal kulturgintza osoaren zati guztiak goratu nahi ditugu”**

Urte sasoi honetan, asko dira kultur ekintzak ospatzen dituzten herriak. Hitzaldiak, kantaldiak eta kultura asteak. Urolaldekik heldu zaizkigu azken berriak. Aurrez baguenen, zerbait moldatzen ari ziren susmoa, baita Euskaltzaindiakoin harremanetan zihar-duela ere. Gauzak honela, Z. Argiaren 587garren zenbakian, Anatsanek zabaldu zigen berria.

Urolatarrek, zerbait berezia egin asmo dutela dirudi. Gai bakar bat aukeratu dute, Saiakera hauen aztergaitzak. Hots euskara gure hizkuntza.

Urolatarren gogo-asmoak eta eritziak ikasi nahirik, Azpeitira jo dugu. Izarraipeco herri mardul honetara. Astegun iluntzaroa da eta jendea tabernaz taberna dabil. Herri alai dirudi Azpeitia honetara, azalez behintzat.

Ezin esango dugu denak nafarrardo gozoa zurruputzen dabilizkanik. Giza talde handi batek Alfabetatze eskoletan euskara ikasten dihardu. Gure gauro solaskideak ere talde honen barruan daude. Alfabetatze saioa amaitu arte ezin elkarriketari eraso, zigarro bat ketuz itxoin egin behar. Baina ez dugu aspertzeko betarik ukan. Lehen Saiakera hauen arduradunek, berehala hartu gintuzten. Aurrez aurre ditugu Miren Zinkunegi, neskatu bizia, Xabier Arozena eta Anatsan.


—Urolaldeko Saiakera hauen berri xeheak jasotzera etorri naitzazue. Mintza zakizkitate. Otoi.

—Gauro egunean, Euskal Herriak bere herringintza du xede nagusia. Herringintza ez da hitz hutsa eta antzua, berari itsatsia du kulturgintza ere. Saiakera, bere ahalmenen arabera, Euskal gizarteak bizi dituen kezka arunt guztien agerpena izan nahi du. Gure kulturgintza osoaren zati guztiak goratu nahi ditugu. 1972garren urteko Abenduaren egin genituen Biltzarretan, gaiak zaharkito eta ugari erabili genituen. Biltzarren helburuei zegokienez, gaiak halaxe erabili behar zuten: oso zabal. Saiakera ordea, gai zehatz eta mugatu bati lotuak daude. Saiakeretan aldiari aldiari beti gai mugatu bat landuko dugu. Oraingo honetan euskara gure hizkuntza. Eta bide da, euskara aukeratzeaz batera.

Euskaltzaindia ere gogotan izatea.

—Lehenbiziko Saiakera hauetarako hizkuntza aukeratu duzue. Euskara galtzerian ikusten duzelako? Hizkuntzak geroz eta inportantzia gehiago duelako?

—Urolaldean bertan dugun giza-giroak bultzatzen gaitu ezinbestez euskara kultur mailara hel dadin ahalgintzera. Gurean ere euskarak kaltetze arrisku berdin berdina du. Ze, ez pentsa, gure baileran beste-tan baino kezka eta kontzientzia zorrotzagorik dugunik. Honela uste izate, Axularrek zioen bezala nahikunde soila litzateke eta gurek illuratzeko lobelari nazkagarria. Ihar honetako bulegoetan, merkatarien artean, irakaskintzan, kultur izenez estalirik dauden zenbait elkartetan eta beste toki gehiagotan, euskara galdurik dadukaten herrien antzera jotzen da. Pentsa, Azpeitian jokoaharrien desafia-



tzak eta gainotzeko apustuak ere erdaraz idazten direla.

Diozun bezala, guk hizkuntzari garrantzi handia ematen diogu eta zazpi ahalak egingo ditugu gizartearen muin munerera euskara sartzen.

—Euskararen ganako kezkarik eza agertu duzue. Urolan ez ahal da beste herritan baino euskara gehiago egiten?

—Honen gakoa soziologiaren bilakearan datza, gure ustez. Begira. Azpeitia, Azkoitia eta Zestoaren ingurua araz nekazarria izaki, indus-tringintzaren hazkunde ez da izan beste herrien antzekoa. Adibidez Zumarraga. Hiru herrietako indus-triazte oso poliki doa eta ondorio bezala arrotz etorrien kopurua ere ez da izan beste tokitan bezain ugaria. Herri biltzaileen zenbakiak begiratzeko aski litzateke. Azpeitiak oraindik hamaika mial biztanlerik ez du, ez da Azkoitiak ere. Eta Zestoa bost milatara ez da heldu.

Beste herri askotako industria-tza kanpotik etortitako kapitalez egin da, baina herri hauetan, alderantziz, bertako burjes tipiek egin dute Azkoitiko bat izan ezik. Eta indus-triaren bilakaera honek harigarrir badirudi ere nekazaritza-aren eragipena ez du ezabatzen. Arazo soziologiko hauen dira nagusiki gauro giroari eusten diotenak; ez

guk kezka handiago eta euskara gehiago landu dugulako. Egiten dugun euskara aho hizketa soila da, batere landugabea, eta bizi baino iraun gehiago egin izan du. Gauzak honelaxe, beren garrantzean eta mingostasunean agertzea nahiago dizugu, hitzontzikeria politak esanaz ihardukitzea baino.

—Gaien eta hizlarien aldetik, Saiakera honek goimallakoa dirudi.

—Euskararen arazo Saikera hanen gaita izanik, ezinbestez Euskaltzaindia baliatu beharra dadukagu. Gure ustez, Euskaltzaindia bere bizialdian egiten ari den lanik sakonena orain ari zaigu burutzen. Hainik Saiakera honetan Euskaltzaindia ERAKUNDE bezala eta bere azkenaldiotako lanak banan-bana azalpendu ahal izanen dira. Hizlariak denak euskaltzainak ditugu, nor bere sailean, maisu trebeak oro. Eta euskararen alde lan bikainak egiten ari direnak.

—Hizlari hauek denak ingururatzeko eragozpenik izan ahal duzue?

—Hizlari denak oso ondo jakatu dute gurekin. Ia gehienak lanpeturik dabiliz; baina halaxe gogoz onartu dute gure asmoa eta eskaini diogun gaia ziur gaude arretaz prestaturik agertuko dutela. Juan San Martin eta Jose Luis Lizundia asko lagundu digute; gizon hauen beharra izan dugu gehiag-

tan ere eta beti eskuazabalez gizonki hartu gaituzte.

—Galak hautatzerakoan zer nolako irizpidez zuzendu zarete?

—Oso gogotan eta begien aitzinean izan ditugu Euskaltzaindiak aurtan ateratu dituen lanak. Merkatalgo izendegia, aditz laguntzailea etab. Ipar Euskaldunak ere ez ditugu baztertu nahi izan. Harrits-chelhar jaunak zuberotar pastoral eta herri-literaturaz mintzaldi bikiak bat egingo du. Euskaltzaindiaren asmo bezala Batasuna ere sartu dugu. Euskara biziko bada, eta ez iraungo bada, Bata beharra du. Batasunaren beharrez aisa oharitzen da kulturgintzan eta euskalgintzan dabilena. Bailera honetan Z. Argia, Anaitasuna eta alfabetatze saioei esker, gogor ari da tinkatzen; jadanik hamabost irakasle Euskaltzaindiaren Irakasle titulua lorturik du. Ikusmen honetarik Patxi Altunaren hitzaldia oso aberatsa izango da. Mitxelena berriz, zer esanik ez dago, denok dakigu oso ona dela. Bilboko Antropologia Astearen erabilien zuen gai bera du: Hizkuntza eta kultura. Xabier Kintanarena ere egun egunko gaia dugu. Kultura eta teknika bideetan sar dadin euskarak bizkortu egin behar du. Eta Kintana dugu arlo honetan gehienik salatzen den langilea.

—Urola bailera bakar samarrik gelditzen ari ahal da?

—Ez dugu uste bailera hau barkatzen ari denik, nahiz eta beronek komunikabide kaskarrak edukiki. Zenbait joera “azpeitiarkeizkoak” bai duela bitxikeria hutsen gelditzea arriskua. Eta gauroko egoera eta problemek atea erabat itxeko mania. Gandiaga poetak arazo du bere poema, “Errezera goaz. Te errezenera. Azkenean folklore hutse izango gara; geure akordu bat baina inondik ez geu. Herri zahar bat bazen, halako ohi-turak zituen... ta ipuin bat gehiago”. Sakon honetan, funtsen horixe nahi bait dute zenbait burjes tipik: gure kultura guztia gizartearen dinamika eta problematik erabat urrutiratu. Euskara Batuari “mamuk” eta “simboolak” ikusten dizkiote. Baina beren sendietan, beren semealabengan, beren emazteengan eta beren senarreen- gan eguneroko ostantua duen erdarak ez dituzte batera izutzen. Euskalduna fededuna izan behar du; baina fededuna ez da euskaldun izatera beharrazten.

—Lehen Saiakera hauek jarraipenik izango ahal dute?

—Bai noski. Udazken aldera hasi eta era honetako beste zenbait lan eratuko dugu. Hiritgintza, Ekologia, Arteaz, Historiaz etab. Apaz gazte batekin harremanetan gaude ondorengo beste Saiakerak prestatzeko. Aipatu dizkizugun gai haue-tan, zenbait elkarte lan asko egiten ari da. Lan guzti hauek bil-durik, aldiari aldiari saiakera mo-dura eratu eta tajaturik agertu nahi ditugu. Luzarora begiriturik ari gara eta noski gero eta jende gehiago kontatzeko modua izango dugula uste dugu.

—oOo—

Asmo egokiak dituzte gauroko gure solaskide hauek; kulturgintzan arretaz beterik jo ta ke ari dira. Izango dute zereginik franko, haitzurka askoren beharra dauka gure kulturak, tarteko belartzarrek ito-ko ez bada. Pizgarri zaizkigu hone-lako ekintza guztiak; egun holetan gure ahalagin guztiak egingo di-tugu Saiakera hauetara eguneroko etortzen.

ERRIALDE

### NON ZER

Lana, langilea,  
lantegia

Ugalde . . . . . 3 gn.

Ezkerraren indarra

Azurmendi . . . 5 gn.

Asteroko Solasa

Olazabal . . . . . 7 gn.

# Bi gizon harrigarri

Endañeta eta Mendizabalen jokoa gora eta behera jardun da jendea. Behin ere baino ardura haundiago hartu dute joko hau egunkariek ere.

Ez da erraz jendea ezer gehiago esaten. Orri osoak eskaini dizkiote egunkariek gertaera honi. Izan ere ez da berriketako lana 250 eta 225 kiloko harri tzarrazk zortzina aldiz jasotzea.

Lehengoa ez genuen ezer aipatzeko lekurik izan. Bienbitartean irakurri du jendeak joko hartaz idatzi zitekeen guztia.

Behin ere ez bezala azaldu dituzte egunkariek argazkiak ere. Ez da erraza, honetan ere ezer berri-rik agertzea. Baina jendeak baditu galdera batzuk. Zer alde dute Endañetak eta Mendizabalek gorputzaren luze-zabalean eta egiturak? Ikus zazu biak batera eta ondoan dauden argazkia.

Noraino jaso zuen bederatzigarren jasoaldian harria Endañetak? Bederatzigarren jasoaldiko argazkiak dituzu Endañetaren hirurak. Hiru kolpe eta bizkarrean zuen, baina ezin nonbait eta hara nola botatzen duen lurrera. Gainera, lurrera erortzen da zerraldo, koskan behaztopaturik. Begira hiru argazkiak.

Ikustekoa da Mendizabalen jarrera ere.

Arturo Delgado argazkilaria esker ikusi ahal izan ditugu argazkiak bi jokularien unek.

—oOo—

Beste zenbait zehaztasun.

Endañetak, 32 urte eta 102 kilo ditu.

Mendizabalek, 28 urte eta 103 kilo.

Endañetaren harriak neurri hauek zituen: 39 x 39 x 58, eta 250 kilo.

Mendizabalenak, berriz: 37 x 37 x 63, eta 225 kilo.

Bosna minututako hiruna ekinaldira zen jokoa.

Endañetaren markak:

Lehenengo ekinaldian:

1. Jasoaldia 0'eta 16"an
2. Jasoaldia 2'eta 38"an
3. Jasoaldia 4'eta 49"an

Bigarren ekinaldian:

1. Jasoaldia 0'eta 14"an
2. Jasoaldia 2'eta 37"an
3. Jasoaldia 4'eta 51"an

Hirugarren ekinaldian:

1. Jasoaldia 0'eta 16"an
2. Jasoaldia 2'eta 37"an
3. Jasoaldia huts.

Mendizabalen markak.

Lehenengo ekinaldian:

1. Jasoaldia 0'eta 15"an
2. Jasoaldia 4'eta 40"an

Bigarren heldualdian ez du bizkarreraino jasotzen.

Bigarren ekinaldian:

1. Jasoaldia 0'eta 15"an
2. Jasoaldia 2'eta 28"an
3. Jasoaldia 4'eta 44"an

Hirugarren ekinaldian:

1. Jasoaldia 0'eta 13"an
2. Jasoaldia 2'eta 36"an
3. Jasoaldia 4'eta 47"an

—oOo—

Ikargarria izan zen Ekainaren bigarren eguna Azpeitiko zezenplazan. 4.500en bat lagun sartu omen ziren barrura. Ikustekoa zen hango giroa.

Zortzina geratu ziren. Bederatzina geratu zitezkeen.

Hurrengoan astunagoi heldu behar ote die?

Ez ote dute nahikoa?

MUTIOZABAL




Mendizabal eta Endañeta



Mendizabal



Endañeta, bederatzigarren jasoaldian huts egin zuenean



Endañetak huts egin eta gero, harria botatzen duenean



Endañeta, lurrean zerraldo

ERLOJU ETA BITXITEGIA

**Eduardo Chopetia**

Getaria, 10 - Urrutizkifia: 417751 - Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

**MITXELENA**

ORDULARI ETA BITXITEGIA

Del honi jarraituz bezatuz zure erlojua KANARIAS b'rtan balio merkeago erosiko duzu

Matxin Arzu, 1 ONDARRABI

# ITZIA R

## Industrialeku berria

Harri eta zur utzi gintuzten Maiztareen 19ko eta Ekainaren 1ko egunkariek. Industrialeku berri baten albisteak ematen ziguten ustekabeak.

Induban, Aurrezki Kutxa Probintziala eta Lan Kide Aurrezki diruetzen diren laguntza eta Debako Udaletxearen eta bertako alkatearen eraginez, industrialeku berri bat moldatzen ari da, "Uri" elkarteak, etazko delarik.

Miloi bat metro kuadrado taxutu dituzte horretarako Itziarko mendian. Zortzi edo hamar milaren bat langilerentzat lana emango duten lantegiak doaz eraikitza. Honela, Debako herriak eta Itziarrekin bertan izango dute lanbide berri bat. Elgoibar, Sorluze eta Elbar, herri, industriaren itometetik aterako dira. Bidezko da industri pilatzeari ihes egitea.

Ez dakigu honetarako lekuri egokiena Deba den ala ez, baina Gipuzkoako badu industrialeku berrien beharra. Dabarrek eta ordetarak bete direnez gero, toki menditsuetara jo beharko da gainera.

Baina zer industri motarentzat egin behar da leku? Edozer tankerako industriaren beharrea al gara?

Hiru mallako lantegiak egon ohi dira industri alorrean. Hiru mallako edo aldi igaro dituzte industriaz lanean herri aurreratuek. Eskulan astun eta haundikoak sartzen dira lehen aldiak. Bigarren aldiak, herri, tresneria hobekoak eta eskulan arinakokoak. Hirugarren aldiak sortzen den industria, burulan haundikoak da batez ere. Bese-zainak baino gehiago burua nekarazten duten lantegiak dituzte. Hirugarren maila edo aldi honetara irixten ahalegintzen dira aurrerabidean doazen herriak.

Ez dakigu Euskal Herrian lehen aldiok industriaren premiarik badugunik. Izatekotan ere Ebro ondoan izango dute. Badaki Ipar aldeko eskaldunak tresna berri eta aurreratu samarrez baliatzen. Asfaltu iragan zen hemengo jendea, lan kontuan, "Cartilla"tik "Canton"era. Nafarroako zenbait tokitan beharko litzateke, agian, bigarren motako industria.

Baina Gipuzkoak eta Bizkaia badute herri aurreratuaren pare jartzeko garaia. Batez ere goi-mallako lana behar dugu bi Probintzi hauetan. Jende asko ari da ikasten. Goi-mallako ikasketak egiten ari den jendeak, goi-mallako lana behar du. Burulana eskatzen duten lantegiak behar ditu.

Zer eskainiko dio Itziarko industrialeku berri honek Gipuzkoari? Zer lan motak lantegiak eraikiko dira? Lan-molde zaharrekoko eta eskulan astunekoak eta haundikoak bereganatuko ote ditu?

Horrela balitz, ez genuke ezer aurreratu. Lantegi aurreratu-tarako ikasi duen jendeak ihes egin beharko luke beste lurraldetara. Oso atzeratuak dauden lekuetatik ekarriko luke berriro jendea. Ez genioke Gipuzkoan eta Bizkaian bizi den jendeari ezer onik eskainiko. Lehendik daukazan arazoak eta premiak gehitu besterik ez genioke egingo.

Baina, Euskal Herriari on egingo lioke, Itziarko industrialeku berriak, lan-molde eta lanabes aurreratu eraikitako balitz. Gipuzkoako egoerari erantzun liokeen industria mota izango litzateke.

Herriaren premiak al dira gogoan industrialeku berri honetan? Ala diru etekinari bakarrik begiratu al zaio? Bakar batzuen onari begira eginga izango al da? Geroak esango du.

Herriaren zerbitzuari begira jasoko bada, ordea, lantegien aukera bat egin behar da. Agotza eta garia, bereziko dituen galbanean pasa behar dira. Ez dago datorren guztiari baietz esaterik. Beste zabor pila bat egiteko bidea izango litzateke axolakeria hau.

Industriarik aurreratuena eta aukeratuena ekarri arren ere, beste hari mutur asko lotu behar da.

Hamabost urteren buruan hornituko omen da zortzi edo hamar milaren bat langilerentzat izango den industrialeku hau. Hogeita bost eta hogeita hamar milaren bat bizilaguneko herri berria sortuko da, besterik gabe, Deba aldean.

Era askotariko zerbitzuak eskatzen ditu honelako herri batek: ura, argia, etxeak, kaleak, dendak, jolas eta kirol lekuak, bitlokiak, osasun-zerbitzuak, ibil-bideak... Aurrez pentsatu eta erabaki behar da, non, noiz, nork, zer eta nola moldatu eta ipiniko diren zerbitzu hauek denak.

Egia esan, egunkariak dituzte, hau guztia kontuan hartuta dago, baina gutxi zehazturik. Ez gara hitz hutsetan fidatzen. Lehen ere eskarmentu haundia eta txarra dugu aho honetan. Astakeria eta aldrebeskeria gehiegi egin da. Zerbitzu premia ikaragarria dago lehendik ere.

Horregatik dei egiten diegu herriar guztiei eta batez ere arduradunei. Inguruko eta Gipuzkoako beharrei taxuz erantzuteko izan dadila Industrialeku berri hau.

# GAZTERIA, HERRIKO

## JAIK, HELBURUA

Herri txikietan edo erdi mailako herrietan —hobeto esanik— gertatzen denez idazten dut. Hain zuzen, jaiek antolatzeke kezka gazterian nola sortu den eta helburu hoiak lortzeko zer bide erabili den adierazi nahi nuke. Herriko jaien antolaketa gazteriarren heziketarako gerta dadin nere itzia emango dut, ikusi eta biza izan dudana kontuan hartuz.

Zeuk ikus, irakurle. Behar bada, ekintza honek, toki bakoitzean arazo bereziak ukanen ditu, helburuak ere desberdinak. Tankera honetako herriei ematen dut nik neure iritzia, baina zabalero haundian hartuz.

Ekintza antz ikusten ditu herriaren onari begira dagoenak. Gazteriarren hezierarik eza eta ezer ez egin nahia nabari da gure herrietan. Ekintza hoieta bat, gazteria herriaren nortasunari degokionez hezea eta esnatzea litzateke.

Horretarako, gazteriarren artean batasuna lortzea izan da lehen pausoa. Bide bat behar da, ordea, batasun hori lortzeko. Ekintzan eta lanean sortzen da elkar ezagutzeko eta batzeko bidea, ez geldi-egonean.

Herriko jaiek antolatzea izan daiteke ekintzetako bat.

Oso egokia iruditzen zaie gehienek ekintza hau. Izan ere hain atseginak eta politak dira jaialik. Gazte askok parte hartzeko moduko ekintza da.

Jaiek antolatzea ez ezik beste amaika gauza ere egin daiteke herriko gazte guztiak honela elkartuko balira. Jaien ekintza, beste ekintzetarako gertutera aldi eta epe bezala hartzen dut, beraz.

Urtero izaten dira herriko jaiek. Urtero dago, beraz, jaiek antolatzeke lan hau.

Lehen gogotsu eta herriaz kezkatutik ziren gazte haiek haseran bezala jarraitzen al dute herriari erantzun jator bat eman nahirik? Jantzik al zeuden jaien helburuak?

Hostu egin dela dirudi jendea azken bi urteotan. Jaiek duten garrantzia jabetutako bi edo hiru lagun bakarrik jardun ohi dira festak antolatzen. Lan haundia eta astuna da herriko jaiek behar bezala etatea, herriaren nortasunari dagozkion jaiek antolatzea batez ere. Agintarien aldetik ere ez da izaten laguntza gehiegirik. Betiko hiru laguntxo hoiak ere aspertzeko eta erretzeko arriskua dute.

Egoera hau aztertzeko eta ikusteko garaia dugu.

Garaia apraposa izanzen litzateke hezkuntza saila sortzeko.

Hemendik sortuko lirateke sail guztietariko elkarte eta taldeak.

Erakunde batzuen jabe egin da herria. Gai ote dira erakunde hauek herriari erantzuteko?

Memento hartan hori izango zen jalak antolatzen ari ziren gazteen helburua.

Herri eta herriar kontzientzia hartzeko ekintza izan behar dute «herriko jaiek».

AZKORBE

# Lana, langilea, lantegia

## LANTEGI GARESTIEGIK

Gaurerregun lantegiek, indartzuz eta osatuz doazen horretan, gero eta egitura bihurriegoa izan ohi dute lantegi barruan. Gero eta departamentu berezi ugariago. Erosketak, lanaren planifikazioa, fabrikazioa, teknika inbestigazioa, komertzializazioa, administrazioa eta abar ondo zaindu eta landutako sailak izan ohi dira gaurko lantegietan.

Bada beste lanik ere, bada beste egitekorik ere. Enpresa batean kosteak itxuratu eta zaindu dituen taldeak eginkizun latz bat izan ohi du esku artean. Prezioak ipintzerakoan kosteak onarritzat harturik aztertu eta burutu behar duten lana balta.

Eta hauxe da, hain zuzen, ukitu nahi dugun arazoa. Gure artean lantegi garestiegi asko dago; zenbait lantegien kosteak, gogoa harturik garestiegiak zaizkigun lantegiak ez ditzaizkigu onartzen eman. Kosturik nagusiak ez ditu nagusiak ordaintzen, ez ditu kapitalak bere gain hartzen, herriaren bizkar, gizartearen kontura sortzen diren kosteak direnez gero inork ez ditu haintzakotzat hartu nahi izaten.

Hogeiren bat urte izango dira Kapp idazleak arazo hau Estatu Batuetan salatu zuela, gazteriarren kontura gertatzen diren kostuak gogoa hartu behar direla esaten zuela. Geroztik amaika pausu eman dute, amaika erabakidaren ondoren, egia aitortu diote. Guk, gure lurraldeari begira zer esanik badugulakoan gaude.

Zergetik ez dugu gure hibaletan zehar ibilalditxo bat egiten? Has Hibaizabaldik eta Bidasoan —hego aldekoak baino ez aipatzen—, nola aurkitzen dira gure hibaiek? Zer dela eta hibaiek horrela dizegin? Noren eskubideekin kutsatu dituzte? Eta industriak dekarren zinkieria? Eta arnasa hartzeko behar dugun haizea nork kutsatu du? Bal ehal dugu horretarako eskubiderik?

Honenbestez ez dugu industria-gintzarik gaitzetsi nahi; industria-rik ezaren egoera zaguatu dugu ipar aldean eta bertako egoera ez da askoz hobea. Baina, lantegiak sortzerakoan, herriaren bizkar gertatzen diren kostuak gogoa izaten ahal ditugu?

Autopista bera, adibidez, gauza ederra dugu heruntz eta heruntz istante batetan iristeko. Lehenago behar genuen denboraren laurdena iristen gara nora nahi. Baina autopista egiterakoan egin diren aldrebeskeriak indemnitazio ordain daitekeenik sinesten duenik bai ahal da? Autopistaren kostuak gutxitzearen ez ahal dira herriaren bizkar doazenak ugaltu?

Errenterian bertan, Pasaiaik kal inguruan, CAMPSAK depositu haunditatzuk egin zituen. Lezo eta Errenteria herri bi hauen artean. Handik euzo pasatzen bazara Oiarzun hiba ertzean ikusiko dituzu. Hori bai dela kostu gutxiarekin egindako lana. Kaiatik bertatik bertara. Baina deskuido santuan, egunen batetan, surik sortuko balitz ez litzateke nolanhiko kaltea sortuko.

Zentral nuklearrak nolako ondorenak sortuko ote dituzte? Herriaren kaltetan egindakoa, nork neur dezake? Herriaren ondasunak zer dela eta jakineko enpresa baten zerbitzuan ipini? Hemen alpatu ditugun lantegiak ez ote zaizkigu benetan garestiegiak?

Historia itzuli ezinezkoa da, horregatik ez gara iraganaz pentsatzearen zale. Baina, Lege Zaharrek ongi baino hobeto zaintzen zuen arazo hau. Gitekieko ondasunak guztizant izan zitezkeen agintzen zuen lege hark. Geroztik izan diren aldatetarik ez dira onerako izan, nonbait.

Bada beste kostu mota bat, bereziki langilearen bizkar sortzen den kostua. Eguneroko lana eguneroko soldatari ordaintzen omen da. Demagun horrela gertatzen dela. Baina langileak lantegian osasuna gaitzen badu, laborearen boroaz bizia laburtzen badu, giroaren kutsaduraz birrik gaitzen badu, lanaren halabeharrez eta ezbeharrez bizia gaitzen badu, nork ordaintzen ditu kostu horiek? Langileak eta makinak diruz berdindu ahal ditezke? Nork neur dezake horrelakoetan egiazko kostua?

Lana behar dugu, lantegiak behar ditugu, baina ez, noski, garestiegiak zaizkigun lantegiak.

MIKEL UGALDE

# zeruko ARGIA

Zuzendaria:  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek argitaratua. (Kale Nagusia, 50-1.º Burjada - IRUIREA).  
Donostia: Okendo, 22  
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:  
Barruan 350 pezeta  
Korreo batasunetako herrietan 400 pezeta  
Aterrietako beste herrietan 420 pezeta  
Airez Aldez aurretik galdetu  
Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta  
Moldiztegia eta Idazkola.  
«Gráficas Navas»  
A. Adoain, 1. IRUIREA  
D. L.: NA. 80-1963

# EGUN EGUNGOA


IBILTARI PENTSAKORRA

Otsagi, Jaurrieta, Uzta-  
roze, Isaba, Urzainki, Garde... Saraltzu eta Erronkari eskualdeak ia oso-osorik eraldatuak. Argi printzak ez ugar: Otsagiko zenbait haur iruñeko ikastolan, Isabako gazte eskualduna...

Euskaraz horren ozenki mintzo diren mendia, baso, eta erreketan pentsakor nabili. Oraingo kontua, diot neure baitara, ez da lehengo bezalakoa. Euskararen muga zineten lehen, Saraltzu eta Erronkari, batzate beste. Orain, ordea, erdara sartu zaigu bazter guztietan.

Han eta hemen, bada, asmoak bil ditzagun eta indarra bat. Betor euskal pizkunde foretsu eta aiaia Euskal Herri zabalean.

Daniel Ibargoiti



**apostua azpeitian** Esan bezala, ekainaren lehen igandean Endaia eta Mendizabal harri-jasotzaileak egundainokoa eskaini zuten Azpeitian. Hango ipi-apa guztiak, argazki eder eta guzti, Mutiozabalek alpatzen ditu 2. orrialdean.

Gue ere zezen plazan bertan ginen apostua hasi baino ordu erdi lehenago, Jose Mari Iriondori hitza emana genionez gero. Horrez gainera, bertan aurkitu genituen Imanol Laspiur eta beste hainbat adiskide.

Uste baino gehiago kostatu zitzaion jendea iri sartzea. Kontu izan sarrerak ez zirela goizeko 9.30ak arte salgai jarri. Endaia eta berak hala eskatu bait zuten (sarreraren kopia egiten artista talde bat ba omen hor nonbait). Eta, ordua baino hamar minutu lehenago inor gutik espero zuten hura beteko zenik. Besterik gertatu zen, hala ere, azken batez.

Argazkilaria, batz bestea, ehunen bat bai. Sasoi batetako harri-jasotzaileek ez zuten horrelakorik ezagutu. Omen du berri dugun Errekartexori galdutako bestela. Hain zuzen, Jose Luis Iriarte azpeitiarrak ondoko esan zigun, era honetako apostuetako ikusle mota, mai-laz "igo" egin da azken bost urte honetan. Bai, jende dotoreagoa ikusi ohi da gaur egun apostutan, Endaia eta parte hartzen dituztenak, behinik behin.

Honek badu bere arritua, "espektakulo" soil bihurtzea, alegia. Eta espektakulo delakoak komertzializazioa dakar azken batean...

Irakurleak dakikenez, nor hasi hautatzea Endaia etari tokatu zitzaion arren, berak ekin nahi izan zion lehen-dabizi, zenbait jende "adituk" espero zutenaren kontra. Jakiteko arrazoirik zuen batek aurrez esan zigun, berri-z, norgehiagoka baino demostrazioa omen zen hura.

Zekienik ez dakigu, baina azkenean igarri egin zuela ezin uka. Denok, ba, pozik. Ez da guti!

## soraluzeko plaentxian

Mendizabal plaentxiatarrek gutun batz adiarazten digun, zortzi egunen buruan zenbait saio eratzeko da Soraluzeko Plaentxian.

Hilaren 15ean, larunbat arratsalde, Zahar Sarituen Eguna eratuko da bertan. Programa arratsaldeko 5etan hasiko da, Santa Ana eliztxoan hilak diren zahar sarituen oroigarri ospatuko den meza batez.

Arratsaldeko 6etan, Enparantza Berrian, jaialdia. Ikastolako dantza taldeak, Soraluzeko bertako "Akelarre" taldeak, Iñaki Arriaran kantari bergararrak eta "Kikio" delakoak, nor bere emanaldia eskainiko dute.

Azkenik, afari bat eskainiko zaie zahar guztiei, bai eta zenbait epari ere.

Hilaren 22an, berriz, Soraluze Antzokian, kanta jaialdi bat eratzeko da, biharumuncan izanen den Euskal Jaia-aren alde, Baskolaren alde alegia. Lupe hermetarrek eta Pantxo eta Pello bikoteak osatuko dute honako jaialdi hau.

Azken batez, hilaren 23an, IV Haurren Euskal Jaia, Soraluzeko Ametsa elkarte antolatzaile delarik.

## beste hainbat

Joan zen asteen esan bezala, horra non lortu ahal izan dugun Elgetako "Ozkarbi" gazte taldeak moldatu duen programa. Hala ere, programa horren luze da eze, ez dugu orrialde honetan sartzerik izan.

6. orrialdean irakurri ahal izanen du irakurle interesatuko. Gure aldetik datorren asteen egunen diogu al-pamenen bat edo beste, merezi duelaun gaude eta.

Azpeitian eratzeko diren Urolaldeko Lehen Saia-keraren programa ere ezagun samarra izanen da irakurle kezkatuentzat.

Hala ere, zaharunge pittin batek kalterik eginen ez diolakoan, ekainaren 17tik, 21era arteko bost egunen buruan beste horrenbeste mintzaldi eratzeko dela gogora dezagun.

Aita Villasante, Juan San Martin eta Jose Luis Lizundia jaunek jendaurreko elkarriketa batez ekinen diote hilaren 17an, eta ondoko egunetan mintzatzeko dira, errazkadan, Patxi Altuna, Xabier Kintana, Joan Haritxelarik eta Koldo Mitxelena. Mintzaldiok Soraluze zine-man eratzeko dira, sarrera dohan izanen delarik.

Programa honetik aparte, baina osagarri bezala, bi-laren 22an, antzerki saio bat eratzeko da, Zestoako gazte-to taldeak haurrentzat bereziki burutu eta moldatua.

Programa polita, Donostiako gazte talde batek ekainaren azken asterako prestatzen ari dena ere. Beste zenbait saioaren artean jendaurreko elkarriketa bat mun-tatu nahi izateko, zenbait hitzaldi labur eskaini ahal izanen duten hiruzpau hizlarik osatuz.

Hitzaldi labur hoitan egungo euskal kulturaren egoe-ra nahi luke ateantatzaileok azaldu, irratiaok, aldizka-riak, editorialak eta beste hainbat alderdi aztertuz.

Besterik ezean, badakigu dagoeneko ekainaren 28an, ohi ez den kanta jaialdi bat eratzeko dela Atotxa Fobai-la Zelaian. Bertan izanen dira Mikel Laboa, Artza anaiak, Lurdes Iriondo, Iñaki Zabaleta, Lupe, Xeberri, Oskarbi, Oihartzunak, Pantxo eta Pello, Jon Bergaretxe eta Be-nito Lertxundi.

Oker ez bagaude, guztira hogeita bi kantari diren arren, ez omen dute fobalaian eginen. Telebisatuko de-nik ez da, beraz, espero.

Musik mugimendua arras indarberritu zaigu az-ken urteotan Arrasaten. Gogora dezagun bandaren in-guruan Azurmendi jaunak eragin duen zaletasuna, eta ezin inolaz ere alpatzeko utz "Danok" elkarlearen ardu-rapean sortarazi den kanta taldea. Bion ekintzaren on-dorioz, horra "Txanton Pipert" delakoaren hainbat aur-kepen.

Arnasberritze honetan, ordea, Arrasateko Udaletxeak Herri Banda desegitea erabaki du, bandaren beraren fun-izio eza dela eta gaur egun. Arrasatearrek dute honetaz hitza, eta ez gara gu inoren sorotan sartuko.

Hala ere, zaletasunik ez dela herrian falta erakutsi asmoz, ekainaren 17tik 23ra arteko zapi egunen buruan

karian agertu izan dira, botutuz har daitekeen euskara bizi bezain ulertieraz batez. Eituri Batzordeko, orain arte egin izan diren bilera eta saio guztietan parte hartu izan du. Horrez gainera, Testamentu Berria itzultzen ari da elkar-lanean.

## ikastaroak

Euskararekiko ikastaro labur bezain eraginkorrek ugaldut ohi zaizkigu udan. Pozgarri da, benetan, jendea halako gauzez jai girotan arduratzea eta oporaldiez baliatzea. Hona orain arte jakin ahal izan dugun hiru ikastaroen berri.

Jesús M. Arzubiaga irakurleak izkribuz adiarazten digunez, Algoriako Ixas-Gane elkarteak ikastari berezi bat eratzeko du datorren uztailan, Algorta eta herri be-ronen inguru-minguruan euskara ikasi eta ikasteko sor-tarazi den giroari erantzun bat eman nahi, bai eta orain arte egin den zenbait ikasaldiren jarraipen gisa ere.

Ikastaro hau uztailaren barrena eratzeko, bai, igande-etan ezik egunero, arratsaldeko 4etatik. Stara. Matrikula 2500.— pta. izanen da.

Ikasgaiok talde txikitik moldatuko dira, bizkaiera nahiz euskara batuaz, nor bere aukeran, eta ikasle ba-koitzairen jakintza mailaren arabera.

Izenak ematea, Ixas-Gane Elkartearen bertan. Ikasta-roa, berriz, Algoriako Ikastolan eratzeko da, Euskaltzain-dia-aren ardurapean.

Gipuzkoako Apezpikutzaren Irakaskintza Saia an-tolatzaile eta Ikastola Federazioa lagun direlarik, mate-matika eta kimia ikastaro bat eratzeko da datorren uz-tailan, Donostiako Elhular zientzia talde berriaren ar-du-rapen.

Ikastaro hau irakasle mailako izanen da, ikastola-ta-ko maisu eta andereontzat bereziki muntatua.

Oraindik egunok zehatz mehatz erabaki ez diren arren, badirudi uztailaren hirugarren asteen eratzeko dela, Do-nostiako Seminarioan eratu ere.

Hego alde honetan ezekik, ipar aldean ere izan-en da euskararekiko ikastaro berezi hoiatko bat. Ho-nako hau Zuberoako Menditxan (Menditte) —Maule eta Aiaratzte artean— eratzeko da, aurtien hirugarren urtez.

Ikastaro hau abuztuaren 5etik, 31ra. arteko hogeita zapi egunen buruan eratzeko da, Saint François Xabier deitu ikastetxean.

Ikasaldiak sei ikasgela eta hiru sailetan banatuko dira, euskara batuaz zein zuberotarrez, eta ikasle bakoit-zairen jakintza mailaren arabera.

Matrikula 500 Fr. langileentzat, 400 Fr. ikasleentzat, eta 5.000.— pta. Hego Euskal Herriko euskaldunentzat.

Ikasaldiez gainera, zenbait kantaldi, hitzaldi, bilera, antzerki saio, folklore agerpen eta beste agertarazko da. Izenak ematea honako zuzenbide honetan: Ikasaldia-ren Taldea, Mende Berri, 32, rue Bourgneuf 64000 Baiona.

## denetarik

Deustuko Unibertsitateko erretoe jar-nak adiarazi berri duenez, datorrea ikastarorako "bizkaitar istudio" delako sail bat munta-tuko omen da Bizkaiko Diputazioaren ardurapean.

Gutierrez hiru katedra eratzeko omen dira, hala nola Bizkaiko Historiaz, Bizkaiko Foru Legieraz eta Euskal Hizkuntzalaritzaz.

Zestoako berri emale den Arizabalagak kanpai-hot-sari ekin berri dio Aizarnako Santa Engrazi ermita-ren alde laguntza eskatzeko aldera.

Duela zapi urte gain-behera zegoen ermita nolabait eraberritu zen, gaingiroki baino izan ez bazen ere. Aur-tengo udan, berriz, zestoarrek gainerako lanari ekinen diote, larunbat eta igandetan hauz-lanean eginez.

Hala ere, esku-lanaz gainera, 400.000.— pta. inguru falta omen. Horra ba, kanpai-hot-saren zera!

Mayalen Arosteigik, iparraldeko kantari gazte den Beñat Sarasolaren emazteak, alabatuko bat mundura be-rru du. Neskatila jaio berriari Maider jarri diote izena. Zorionak.

Beste neskatila bat Azpeitian ere. Gurasok Nora nahi izan diote jarri, baina juezak, ordea, hori ez dela izena eta, Nicanora jarri beharko diotela.

Irakurleak dakikenez, Nora Zankozako Ama Birjina-aren izena da, eta azken batez juez jaunari ere geografia apur bat irakatsi behar izan diogu.

Zuberoan beste pastoral bat gertatzen ari. Bar-koxen aurketuko omen da, uztailaren 12an.

Datorren Ekainaren 16an urteroko bilera nagusia ospatuko dute Nafarroako Ikastolek Elizadon. Aurtien bi-lera hau Lizarran (Estella) eratzekoa zen, baina azken batez, Baztanen eratzeko erabaki du Nafarroako Diputa-zio-ko euskal irakaskintza batzordeak.

Egun berean, hilaren 16an alegia, "Almadia" de-lako bat jaitxi araziko da Aragoi erreko hiru kilome-trotan barna. Jaitxiara hau Erroikari eta Sarritzu al-madilari zaharren emenatan izanen da.

AMATINO

# ZENBAT GARA

I Euskal Musikaren Kultur Aste delako bat eratzeko omen da Arrasaten.

Zenbait hitzaldi eta kanta saio programaturik da, eta, azken batez, Bilboko Olaeta Balletaren saioak buru-tuko du euskal musikari buruz Arrasaten eratzeko den I. Kultur Aste hau.

Nahiz eta berandu, jaso dugu Pasa Antzian orain-goz bukatuta den Erri-Jakintza-Euskal-Astea delakoaren programa.

Programa aski arraroa, host hitzaldietarik lau erda-raz izatekotan bait ziren. Eta azkena, "Euskera-ikasto-la" gaiari buruzkoa, hain zuzen, "nor andereñois e ikas-tolas de la zona. Coloquio (en castellano). Bapo mutuilak! Ezetz ba! Programaren azalean Gernikako Arbola jar-tzea, kanta jaialdia eliza barruan eratzeko, eta Arratiako "Oihartzunak" taldeari hatxea kenteko ez dela nahiko, itxurako euskal aste bat egiteko. Iratzer mutuilok!

Halako programa bat "bestelakoek" antolatu izan ba-lute, ezer ez ote genukeen entzungo!

## emile larre

Orain arte euskaltzain laguntzaile zen Emile Larre jauna euskaltzain osoko izendatu berri du Euskaltzaindiak maiatzeko azken bilera-n. Izendatze hau René Lafon zenak (G. B.) utzi duen hutsunearen betegarri izan da.

Emile Larre baxenabararra dugu, Baigorriin jaioa. Apaiza, 48 urte, Alhorrako erretoe eta HERRIA aste-riko zuzendari, gaur egun. Kanta berri egile eta bertso-lari espalekoa, bertsolari eskoltzaile eta bertso saio era-gile dugu Ipar Euskal Herrian barrena.

Euskal idazle bezala, "Gazte" deitu aldiarikari, "Soko-rri" izengoitia, agertarazi zituen bere lehen lanetxoak. Ge-zortik bere idazlanik gehienak Baionako HERRIA aste-

# Ezkerraren indarra eta ahulezia

Euskal ezkeraren indarra, orain arte, utopia izan da, printzipioak, suhar moralak. Eta euskal ezkeraren ahulezia ere horixe berbera. Euskal ezkerak pignee jantze bat dirudi, horregatik.

Kolakowskik Poloniako ezkerak diegna, euskal ezkeraz ere berdintu esan litekeela, iruditzen zaiz: "La principal debilidad de la izquierda polaca no estuvo en que naciera de la negación, sino en que esa negación alcanzase sólo el nivel de la protesta moral y no el nivel del pensamiento práctico. Una actitud izquierdista cuya conciencia permanece detenida en el estadio de la vivencia moral es poco eficaz en la práctica".

Honen ondorioa berdina da nahiz Polonian nahiz Euskal Herrian: (ezkerra) "no podía ser un movimiento organizado y tan sólo poseía una dispersa y nebulosa conciencia negativa, en contraste con la derecha (...). La izquierda tampoco se convirtió en un movimiento político en sentido estricto; sólo llegó a ser la suma de actitudes éticas surgidas de manera espontánea".

Politikarik egin nahi badugu, behintzat, gure ekintzen xede hurbilak eta hartarako jardupideak finkatu beharko ditugu. Batez distiratsu izango ez diren, eta izaterik ez dadukaten, helburu hurbilak. Desarrollo ideologikorekin alderatzen bada, izan ere, ekintzaren desarrolloak zaila eta eskasa dirudi. Ez dago dudarik, zailtasun horrek askotan teorigintzara, ideologiarantz ihes egin arazi diola zenbaiti: konpentsazio bezala. Zer egin ez zekiena, edo egiten ausartzen ez zena, berebiziko teoriak predikatuz konpentsatu da. Beste hau ere bazegoen, apika: oheret betetzen ari ziren ekintzaileak hilde gogor eta radikalek ikusirik, kultur-lanean zebilenak ez zuten gutiago izan nahi, eta bere modura "heroee" jokatzin ibili ere da. Dena den ideologia ederki giztundu dugu, oraindik gure ekintzaren hezur maskalen gainean. Ezinbestekoa gure horrela lortu dugun inflazio teoriko-ideologikoa. Banakoez ezezik, batzutan talde politiko osoek ere ekintzaren zailtasunetik teorigintzara edo ideologiaren amesetara ihes eginen zutelarik.

## IDEOLOGIKERIA

Baina hesparnauk eta zereginak berezteko premia, hain zuzen ere, bion elkar-lana are hestugotu behar delakoxe, da hain larria egunotan. Ezin esan liteke, orain arte elkar-lan asko egon denik. Intelektualak beren aldetik ibili dira, izugarritzko habailan teoriak egiten (zuzen esateko: ideologiak egiten, esan beharko litzateke. Batez ere utopiak egiten). Eta ekintzaileak intelektualen atzetik, hain egitu zindia.

Orain artean lehen-fase hutsetan ibili gara: politikak ideologi-asmaketan, teoriokak "politikan", edozein edoertan. Dilettantismoan espezialistak agertu gara gu. Batez ere "teorikoe" politikan orain arte eduki duten ahalmena, eskua, moztu beharra dago. Intelektualak egunoro esperimentu aisa egin ditzake (intelektualki), eta egin behar ditu: gure oinarri batzuekin badabil, bihar beste batzuekin arituko da. Gaurko ikuspegia biharko abandonatuz. Alde berriak deskubrituz, beti ere. Eskolastikoren bat ez bada behintzat, ikusgune eta oinarri berriak probatzen ari da etengabe. Politikak, ordea, ez du halako mugikortasunik, ekintzak irudimenak baino mugikortasun gutiago duen moduan. Mugimendu politiko batek ez darduka intelektualen azkeneko ateraldiari begira egotterik, hortakoz. Ez daduka egunoro esperimentu berria abenturatzetik. Joseba Arregiren esera plastikoa batekin esateko: intelektualak zilegi du goizero mundua berriro deskubritzea. Zilegi ezezik, beharrezkoa du, benetan kreatzile bada. Politikak, ostera, ez beharrezko eta ez zilegi luke hori, mitzeleta politiko

bat ez bada behintek-behin.

Lehen-fasean "kontzientzia biztu" beharra bait zegoen, konprengiarria zen ideologiari halako indarra ematea. Halabaina, honez gero erabaki beharra dago, zer nahi dugun: etengabe "kontzientzia egiten" jarraitu, ala azkenean (noizpait!) politika egiten ere hasi.

## IDEOLOGIATIK TEORIARA

Gehienetan "ideologia" eta "teoria" hitzak esanahi eta balio berdinekoak erabili ohi ditugu. Gainera, ideologia nolabait ametziten denean ere, euskara korrientean "teoria" hitzari halako usain negatibo bat puztu zaio: "hori teoriaran ederki dago, baina...". eta "teoria politikak, baina...", edo "teoria hutsa duk hori!", esaten da. "Teoria" hitzarekin zerbait irreal eta alegiazko adierazi nahi izaten da.

La Kantek esaten zuen, usadioaren eta modaren kontra ibiltzea gauza tristea dela. Eta hizkuntza kontuan, gehienetan, arrazoirik gabekoa ere badela, erantsi ahal izango litzateke. Uste dut, zentzu-nahasteren batzuk argitzeko, berezkuntza hau lagungarri izan dakigukeela. Eta nik, hemen, berezkuntza hau beti gogor behar genuenik pentsatu gabe, eta literaturaz espezializatuaren egin ohi den eran, usadioaren esanahi aldenik-alde kontrarioan erabiliko ditut hitzak. Berezkuntza berez inportantea da, baina hitzen kontuaz ez niñe inportantzia gehiegirik eman nahi. Beharbada ekiboko batzuen korapiloak askatzen lagunduko digu, halaxe.

Ideologiaren kritika altxatu denean, eta ideologiaren krisiaz ohartuz, "ideologia zientifikoez" mintzatzen hasi gara. Dudarik gabe, ideologia zientifikoa eta ez-zientifikoa berezi baditugu, lehenengoa arbuizateko eta bigarrenak onesteko asmoa izan dugu gidari. Baina "ideologia zientifikorik" ez dago: ideologiaren bat "zientifiko" deklaratzeko da ideologikeriak galantekoa, hain zuzen ere. Marxistak ortodoseak dira idanik "ideologia zientifikoa" sinesten duten bakarrak (ez denak, baina gehienak: irakasle "ofizialak", alegia). Ik. Kolakowski liburuaren hitzaurrean problema hau. Ideologia, berez, "errealidadearen ezaugarrietatik" aparte eta independente bizi da: eta zenbait kasutan errealidadearen ezaugarrien bidez ongi zeregin soziala "consiste en mantener la fe en los valores necesarios para que el grupo pueda actuar eficazmente". Beraz, "la ideología no es teoría pura; no puede serlo, pues el conocimiento de la realidad, por sí solo, no puede mover a nadie a obrar. La ideología contiene o bien juicios de valor o bien juicios de hecho..." (Kolakowski). Ikus, areago, Kolakowski liburuan (JAKIN, 1972, or. 189 ta hur). "Ideologia eta teoria" atala.

Zientifikoa teoria izan liteke (ez ideologia); hobe to esanda, teoria zuzena beti da zientifikoa. Ideologiak, aldiz, sagarrak edo poesiak bezalaxe, onak ala txarrak izan daitezke, baina ez egiazko edo gezurrezkoak, ez zientifiko eta ez-zientifikoa.

Egon liteke (edo pentsa liteke) ideologia bat, teoriarik batere gabe; ideologia asko eta teoria guti egotea, franko arrunta da: sozialismo utopikoaren kasua hori zen, eta gure gaurkoa ere bai, dudarik gabe. Ideologiari gabeko teoriak ere egon litezke, baina kontesbakorrak izango liratekeela, iruditzen zaiz. (Kasun: ideologiari batere gabeko teoriarik ez da posible!). Jeneralean, halaxe, teoriarik ez da ideologiari faltatzen, eta teoriaren lana bere burua ideologiari garbitzea izaten da: errealidadearen ezaugarrien garbi bilakatzea.

Adibidez, sozialismoaren alde bai "ideologia" kristauarekin ala mohamedanoarekin, eta bai ideologia ateista batekin burruka liteke: balogo sistima eta historiaren zentzu etikoa ulertzeko gisa arras diferen-

teekin. Baina sozialismoaren teoriak ez erlijioarekin eta ez ateismoarekin daduka zerikusirik: datoen azterketarekin baizik. Hau da: teoriak problema konkretu batzuen espikazio zientifikoa (ez etikoa) eta soluzioa proposatzeko du, hain "halorazio" umihertsotetan sartu gabe. Teoriak ezaugarria (praktiko) besterik ez du izan nahi: zientzia. Horregatik ere, posible da, USA bezalako teknologia guziz aurreratuak herrialde batetan eta Yemen bezalako beste feudalista batetan ideologia sozialista berdina erabiltzea; baina ez sozialismoaren teoria berdina erabiltzea. Azkeneko hau egingo balitz, utopia egingo litzateke: ideologia.


Ideologia eta teoria suia eta ura bezalatsu dira. Baina ez dago ura eta suia bezain erraz berezterik. "ya que sabemos que no existe una práctica teórica pura, una ciencia totalmente desnuda, que estaría preservada para siempre, en su historia como ciencia, de las amenazas y ataques del idealismo, es decir, de las ideologías que la rodean; sabemos que no existe ciencia 'pura' más que a condición de purificarla sin descanso, ni ciencia libre dentro de la necesidad de su historia, más que a condición de liberarla sin descanso de la ideología que la ocupa, la acosa o la aterra. Esta purificación, esta liberación, no se adquiere sino al precio de una lucha incansante contra la ideología misma, es decir, contra el idealismo, lucha, cuyas razones y objetivos pueden ser aclarados y orientados por la Teoría (el materialismo dialéctico), como por ningún otro método en el mundo" (Althusser).

Euskal Herrian, ideologiaren sobra duguna haina falta zaigu teoriaran. Errealidadearen azterketa sistematikorik ez dugu egin. Gure ideologiak gidaturik, burruka eraso dugu, eta helburu ederrak persegitzen ditugu, baina errealidadea neuri hartzea ahaztu zaigu, teoria falta zaigu, eta gure burruka inprobabilen ari gara unero. Errealidadearen ezaugarrien sistematika, teoria, behar dugu.

Erabateko eta guzizko kritikak (kritika utopikoak) ez daduka problema bakoitzari banan-ban burubide alternatibo errealista bat bilatu beharrik. Gizarte antolaketari buru arunt bat iragartzen du, problema partikularren soluzioa etorkizunaren eskuetan gomendatuz. Horregatik, dena soluzionagarritzat jotzen du, ez bait du problema bakoitzaren askabide konkretuari, proposatzen den soluzioaren gauzagarritasunari, gizarte jakin baten ahalatasunen limitazioari, jaramonik egiten. Problema guztiak askabide simultaneo eta bat-batekoan pentsatzen du. Gipuzkoako industriaren heriotaz badihardugu, nahiz eta problema honek barruan problema asko gorde, hainek denak bat-batean galditzen dituen soluzioa emango digu ("Iraultza", edo horrelako zerbait. "Socialismoa", beharbada). Irakaspenaz, emakumearen emanpizazioaz, zaharren aseguroaz, urbanizazioaz, bizi-gizaren kiraspen eta kutsadunaz, eta edoertzaz, problema denak batera zuzentzen dituen erabateko "soluzioa". De fakto, ordea, ekintzak jardutekoan bi galdetara erantzuten jardun beharra egoten da: zer egin, —eta zein mediorekin kontatzen dugu? Ez bait dago asmo guziak batera betetzerik. (Problema guzientzat hain erraza izango balitz, sortu ere ez lirake egingo!).

Teoria bat. Gure egoeraren azterketa, eta hurbileko xedearen finkapena: daduzkagun problema eta bakoitzarentzat erabili ditzakegun medioen kontaduria, gure burubide genitzakeen eta ezin ditugun problema berezakuntza, soluzioidearen oraineko eman litzkeen pausoen kalkulua, eta soluzioaren joera, argitu beharko dira, gure herri-mogimendua inoratuak bada. Krisi honetan noragabe geldituko ez bada, Krisi latz batetan erorita gaudela, iruditurik bat nago.

JOXE AZURMENDI



**vany**

SUKALDEKO MUEBLEAK

EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S.L.

Urrutizkifia: 891754

ZALDIBIA (Guip.)

# ELGETAKO UMEEN EUSKAL JAIA

## EKAINA

### LARUNBATA, 22

Arratsaldeko 6etan.—Herriko enparantzan, umeen irakurketa eta idazketa saioa. "LANKIDEEN AUZO-AURREZKIAK" emandako sariak bananduko zaizkie umei.

Arratsaldeko 6etan.—Ikastola aspiko aretoan, KIXKI, MIXKI ETA KASKAMELON pailasok, edukiko dute beren agerpena.

Gauko 9,30etan.—Herriko pilota lekuan "Egi-billa" taldeak "LURRUN-ARGIA" izeneko antzerkia agertuko du.

### IGANDEA, 23

Goizeko 11,30etan.—Herriko pilota lekuan, bertsolarien jaialdia.

#### Bertsolariak:

GORROTXATEGI  
AGIRRE  
LAZKANO  
EGILEOR  
NARBAIZA  
LARRANAGA

### ASTELENA, 24

Gauko 8,30etan.—Ikastola aspiko aretoan "EUSKAL PERIODISMOAZ" hitzaldia.

#### Hizlari:

XABIER KINTANA

### ASTEARTEA, 25

Gauko, 8,30etan.—Ikastola aspiko aretoan "NAFARRAKO LAU AROAK" filma. "Banco de la Vasconia"ren laguntzarekin eratuta.

### ASTEAZKENA, 26

Gauko, 8,30etan.—Ikastola aspiko aretoan "LANGILEAREN KULTURAZ" hitzaldia.

#### Hizlari:

XABIER MENDIGUREN

### OSTEGUNA, 27

Gauko, 8,30etan.—Ikastola aspiko aretoan "HERRIKO ARAZOARI BURUZ" mahai ingurua, herriko jendeak parte hartuz.

### OSTIRALA, 28

Gauko 10etan.—Herriko pilota lekuan jaialdia.

#### Kantariak:

GORKA KNÖRR  
AMETS TALDEA  
BAKARTXO MARITXALAR  
PANTXOA TA PEIO  
JON BERGARETXE

Trikitilariak: SAKABI ETA EGANAZPI



### LARUNBATA, 29 "UMEEN JAIA"

Goizeko 9etan.—OSKARBIKO txistularien kalejira. Goizeko 10etan.—Taldea guzien bilera eta hamarretako.

Goizeko 11,30etan.—Taldeen ibilaldia herrian zehar. Goizeko 12,30etan.—Dantza saioa.

Eguerdiko 1,30etan.—Zezena.

Eguerdiko 2etan.—Bazkaria.

Arratsaldeko 4,30etan.—Taldea guzien bilera plazan eta dantza iharduna.

Arratsaldeko 5etan.—Bertsolari, abeslari eta irrintzilarien saioa.

#### Zezena.

#### IGANDEA, 30

Goizeko 9etan.—Txistulari eta trikitilarien kalejira.

Goizeko 10etan.—Asto-karrera.

Goizeko 10,30etan.—MAUXIXA taldearen kalejira.

Goizeko 11,30etan.—Pilota partidua.

Eguerdiko 1etan.—SOKAMUTURRA.

Eguerdiko 2,30etan.—MAUXIXA taldearen kalejira eta lagunarteko bazkaria.

Arratsaldeko 5,30etan.—Herriko pilota lekuan, Galdakanoko "ANDRA MARI" taldearen dantza saioa.

Arratsaldeko 6etan.—MAUXIXA taldearen kalejira eta SOKAMUTURRA. Ondoren ERROMERIA.

## UNIBERTSITARI ARTEKO I LITERATUR SARIKETA

(AURTEN GOTZON GOENAGA ZENAREN OMENEZ)

E. U. T. G.-ko EUSKAL KULTUR BATZORDEAK ANTOLATUA OINARRIAK:

1. Donostiako Goi-mailako Ikastetxeetan matrikulatuta dagoen edonork har dezake parte.

2. A) Lanak euskaraz izanen dira; Euskal Akademiaren azken araudien arabera. Bi sailetan izanen da:

Poesia eta Ipuina.

a) Poesia: Gutxienez ehun lerro eta gehienez hirurehun.

b) Ipuina. Gutxienez 5 orri gehienez hamar, tarteko bi lerro utzirik (1).

B) Gaia idazlearen aukeran.

3. Lanek originalak, argitara gabeak eta beste inongo saritara presentatu gabeak beharko dute izan.

4. Nola igorri: Hiru kopiatan, lema batez izenpetuak. Honenkin batetara, beste sobre tipik bat bidaliko da, azalean lema duenak eta barrenean izen-abizenak, zuzenbidea, fakultatea, karrera eta kursoa adieraziz.

5. Nora: "EUSKAL KULTUR BATZORDEA".

E.U.T.B. Paseo Mundaiz

San Sebastián.

6. Noizko: epea Uztailaren 15ean bukatuko da.

7. Sariak: Sail bakoitzean 10.000 pezetako sari bakarra.

8. Sariak hutsik gerta litezke.

9. Epaia mahaikoaren izenak utzita jakin araziko dira.

10. Sari banaketa Uztailaren azken aldera izanen da; aldez aurretik jakin araziko dira eguna, ordua eta tokia.

E.U.T.G.-ko "EUSKAL KULTUR BATZORDEA-K".

(1) Orriek "Holandesak" izan beharko dute.

## EUSKAL UNIBERTSITATEA ANTZERKI SAILA

Bigarren Euskal Unibertsitatea izanen da Donibane Lohizunen Irailaren 2tik 13ra arte. Eginen da zerbait antzerkiari buruz, eta hau da, dei bat, Euskal Herriko antzerkilari guziei, hedatzen dieguna. Pentsatzen dugu behar litzekela:

1.º) Elgarretaratu libro izanen diren antzerki egile eta emaila guzirik, eta baita lan hortan hasi nahi dutenak ere.

2.º) Elgarren ideiak agertu, eta gonparatu, antzerki egiteari eta emailari buruz.

3.º) Elgarrekin lan egin, talde bat, bi edo hirutan, eta erakustera eman arratsalde batez lan horren fruitua, unibertsitatean egonen diren guziei.

4.º) Antzerki oso bat eman arrats batez.

Geure zuzendaria eta gure laneko moldeak lekuan berean hautatuko ditugu, elgarrekin. Parte hartu nahi duten orok, jakin araz dezatela lehen bai lehen:

S. ARBELAIZ, X. IRIGARAY  
Euskal Etxea, 10 Rue Duban  
75016 PARIS (France).

## UROLALDEKO SAIK ERAK

EKAINAREN 17.etik 21.era

### 17an, Astelehena

Gaia: "EUSKALTZAINDIARI BURUZKO ELKARRIZKETA"

—Kondaira. Noiz eta nola sortu zen.  
—Zertarako sortu zen Euskaltzaindia.  
—Euskaltzaindiaren barne-egitura eta antolamendua.  
—Euskaltzaindiaren ekintzak eta bere azken-helburuak.

#### Hizlari:

Aita Luis Villasante (Euskaltzaindiko lehendakaria).  
Juan San Martín (Euskaltzaindiko idazkaria).  
J. L. Lizundia (Euskaltzaindiko idazkari-ordetza).

### 18an, Asteartea

Gaia: "EUSKARA BATUAREN ZENBAIT XEHETASUN"

—Euskara batuaren arazoa.  
—Euskaltzaindiak hartutako erabakiak.  
—Zer helburu ditu Euskara Batua?  
—Orain arte lortu dena eta hemendik aurrera landu behar den saila.

#### Hizlari:

Patxi Altuna (Euskaltzainia).

### 19an, Asteazkena

Gaia: "EUSKARA KULTURA ETA TEKNIKA BIDEETAN"

—Euskarak zer egin behar du, kultur-teknika mailara hel dadin?  
—Zer bide aukeratu behar dugu?  
—Hitz berriak nola sortu eta nola erabili.  
—Euskaltzaindiak hartu dituen erabakiak.

#### Hizlari:

—Xabier Kintana (Euskaltzainia).

### 20an, Osteguna

Gaia: "ZUBEROTAR PASTORALA"

—Pastorala Erdi Aroko antzerki mota bat.  
—Pastoralaren aho-literatura.  
—Pastorala gaurko Zuberoan.  
—Pastoralaren helburuak.

#### Hizlari:

Jean Haritschelhar (Euskaltzaindiko lehendakari-ordetza).

### 21ean, Ostirala

Gaia: "HIZKUNTZA ETA KULTURA"

—Hizkuntzak eta kulturak, zer harreman dituzte?  
—Hizkuntza kultura atal bat ahal da?  
—Hizkuntzalariek ditena.  
—Hizkuntza gizartearen komunikabide.

#### Hizlari:

Koldo Mitxelena (Euskaltzainia).  
HITZALDIEN LEKUA: ANTZIETA ETXEA.  
HITZALDIEN ORDUA: 8,30etan.

ONDO BADABILL  
Otsein DA




FAGOR

edaria  
epela dagola?  
FAGOR 'ek  
oztuko  
du bereala



Donosti-Carrerari-Kutxa



EUSKAL IRRATI  
SAIOAK

Banen baneko azikal  
Ongarri ta abonoak  
Bela Zuloak  
Erosi edo berritzeko diru  
aurreratzea  
Baserri, lur-tresnak ta abar  
Torelavega'ko Perira Joan  
etorriak

Baserriaren alde

Kontu emen!

Euki gogoan!

Adiskide ta etxekojaunok!

Zuen enmastezentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukalderako apaingarri

Elitze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeko aukerakoa  
SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»  
Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»

LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR

ESKORIATZA (Gipuzkoa)



## oiartzun

## IKASTOLAREN BERRI

Oiartzun Aurtzaro ikastola orain dela zapi bat urte sortu zan, eta zapi haurrekin eman zion hasera. Berehalaxe Parrokiaren babesean jarri zan. Aurrera joko bazuen ez zeukan beste erremediorik, Alaz ere Parrokiak ez du esku gehiegirik sartzen. Hor dago batzordea eta honen darabilki ikastola.

Gaur egun, 225 haur dabilzta eta heldu den ikastorako badira 55 eskari. Hauetatik 16 (hamasei, bai!), euskeraz EZ DAKITEN umeak ditugu. Xalagarria da guraso hola jolabidea; hemen bizi diren haurrei hemengo hizkuntza erakutsi nahi.

Jakina, erdaldunak euskaldunekin nahasteak kalte asko ekar ditzake; batez ere euskaldunentzako. Orain arte Aurtzaro ikastolan, beti kontuan izan da erdaldunen proportzioa; bost euskaldunentzako erdaldun bat; gehiago ez, eta gainera beti hiru urtetik gora ez direnak. Bestela haurrak alkartzean, erdara joko bait lukete.

Hamasei haur erdaldun hauek onartuak izan dira bainan kondizio batzuekin. Hauek argi eta garbi, eskutitz batean, azaldu zaizkie haur hauek gurasoei.

1) Heldu den ikastaroa bukatze-ko moduan beharko du izan. Jakina, berari dagokion maila batean. Honela izango ez balitz, haur honek ezin jarrai dezake ikastolan. Lan hau gogorra da, alegia euskeraz jakitea ikastaroaren bukatzean, eta bera eraztu dedin, ikastolak arduradun bat hartzera doa; haur hauekin ordu gehientsuenak igaroko dituen, talde berezi bat eginez.

Etxean ez dute euskera askorik entzungo (kalean bai ote?), eta horrengatik ahalaginak egin nahi dira, beren gurasoek hitz batzuek baderen erabil ditzaten. Hortarako euskerazko klase xamur batzuk eratu nahi dira; jakina, guraso hotekin kontatuaz. Hauek ez badute nahi, ez dago deus egiterik.

2) Urtean zehar, gurasoek eta haurren arduradunek, harreman bat izan behar dute. Gurasoak jakin behar du bere haurra nola dijoan euskeraz aldetik, eta erabakiak hartu, baldin eta urrango ikastaroan ikastola barruan ikusi nahi ba du.

Hau guztia, erdal umeentzat egiteko da. Pozgarria da Oiartzun batean, azken urte hauetan erdaldun asko heldu direnez, batzuk behintzat ikastolara joatea eta nolabait euskalduntzea. Bestalde penagarri ikusten dugu, HAUR EUSKALDUNAK IKASTOLARA EZ BIDALTZEA. Gurasoak... euskaldunak. Etxean... euskeraz. Kanpoan... gehienean euskeraz eta... ERDAL ESKOLARA BIDALI. Haur hauek ez al dira hobetoago hezikiko ikastolan, euskeraz, euskal zaletasun batekin? Gurasoek dute hitza. Ea erdal umeak ikastolan ikusteak, bilhotza pixka bat ikutzen digun! Erdaldunenezat hainbeste kezkatzen den ikastola, ez ote da egingo euskaldunentzat?

Orain arte ikusi duguna, haurrei buruz izan da. Bainan Aurtzaro ikastolak beste arazo latz bat dauka nolabait hautsi beharra. LOKALIK EZA!!

Egia da; haur denok sakabanatuta dabilzta. Maila batzuk leku batean ematen dira, eta besteak beste etxe batean. Gainera oso gela kaxkarretan. Ikastolako haurrak ez daude denak batean.

Etxe jatorra izango balu, ez legoke horrelako problemarik, bainan... hau ez izan ordea! Bitartean eta nolabait aurrera jarraitzeko urrango ikastaroari begira, «pre-fabrikatutako» eskola bat egitera doa. Hemen hiru maila emateko moduan izango dira eta bada zer bait.

Gerorako, lege barruan egongo bada, ikastetxe jator bat behar du. Lege barruan egotea beharrezkoa da, bada bestela ezin da laguntza eskatu ere Estatuari eta.

Hontaz, pauso batzuk ematen hasi ondoren, alegia nun eta nola erosi e.a., LARTAUN elkarteak ere etxe jator baten beharra azaldu du eta Oiartzunen egin behar direnez bi edifizio hoiak, zergatik ez batean egin? Asmoa berez bikalna da, bada dirua (betiko diru maltzurra), oiartzuarrongandik atera behar du eta bi edifizio egitea ez da txantxetako gauza. Bat ederra egitea ere ez da samur eta...

Dena proiektuan dago eta ikas-

lehen pausoak emateko. Gero ikusi behar! Euskerriko beste herri batzuetan ari dira zerbait antzeko egiten; hemen gutxiago ote gera? Herri osoari deia egin eta behar bezela erantzungo ez duelakoan (ez bait dago zeharo kezkatutik arazo honetaz), hasera batzuk emateko prest daude. Behin hasi ezker eta batez ere zerbait ari dirala ikusitakoan, erraxago izango da herri osoaren erantzuna. Hala izan dediala! Hasi egin behar!

Pentsa genezake, ikastolaren helburua etxe bat egitea ote den. Hori ezetz garbia esan behar zailo. Aurtzaro ikastolaren helburua HAURRAK HEZTEA DA. Hizkuntzabiltasun (bilingüismo) batean E.G.B. edo Olharitzko Heziketa Orokorra osoa ematea da. Gainera euskal zaletasun bat sortuz gizatasunera haurrak HEZI, ikastetxe hori, helburua lortzeko tresna bat besterik ez da.

tola eta Lartaun, biak prest daude Beharrezkoa zaigun tresna.

Aurtzaro ikastolaren aleka asko ikuitu litezke, bainan gaurkoz aski egin beharko.

Gazte talde batek

## mallabia

## IV. IDAZ LEHIAKETA

Jaietako batzorde antolatzaileak eratuta.

I.—14 urterarte, Tankera eta gaia librea izanen dute.

II.—14 urtetik gorakoentzat, Ma-

llabiaz lotura duen edozer gai harturik.

a) Hitz neurtuz (bertsoz).  
b) Hitz lauz (prosa).

## SARIAK

I.—14 urterarte.

1-go. 2.000 laurleko eta garai saria.

2. 1.500 laurleko

3. 1.000 "

II.—14 urtetik gorakoentzat.

a) 1-go. 2.500 laurleko eta garai saria.

2. 2.000 laurleko

3. 1.000 "

b) 1-go. 2.500 laurleko eta garai saria.

2. 2.000 laurleko

3. 1.000 "

## OHARRAK:

1-go. Lan guztiek euskeraz eginak izan beharko dute.

2. Lanak bidaltzeko epaia utzailaren 31an bukatuko da.

3. Lanak zuzenbide honetara bidali beharko dira:

IDAZ LEHIAKETA.

Bar Bastida. MALLABIA.

4. Lanek izenorde batez izenpetuak izan beharko dute, kartazal itxi batean benetako izena bidaliz.

5. Sari banaketa Andra-Mari eguerdian, Abuztuaren 15ean, Mallabiko pelota lekuan izanen da.

## BATZORDEAK

## 50.000 pezeta illian, zer moduz?

## ZOKETA: 600.000 PEZETAKO 5 SARI

Illero illero berrogei eta amar milla pezetako soldata, zer moduz? Ba orixe da, ain zuzen, urren zozketan saritutakoek jasoko dutena, illero 50.000 pezetan zear. Denera: 600.000 pezeta.

Parte beti bezela ar dezakezu; zenbat milla pezeta sartzen dituzun ainbat txartel jasoko duzu. Baita saldoan bost milla pezeta bakoitzeko beste txartel bat ere.

"Ahorro a la vista" eta "Láminas de Ahorro a Plazo" delakotan kontua zabaltzen baduzu, milla pezeta bakoitzeko txartel bat jasoko duzu.

"Lámina de Ahorro a Plazo" deritzan orretan saldoan zenbat bost milla pezetako ainbat zenbaki jasoko dituzu. Zenbaki zerrendak gure ofizina denetan prest dauzkazu.



## CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



## lasarte

### KANTALDIA

«Bertso eta kopia zahar eta berriez» osaturiko kantaldia emango digute Xabier Lete, Antton Valverde eta Julien Lekunak.

Txirrita, Xenpela, Pello Errota, Zapirain, Zabaleta, Otaño, Urrutia, Kaskazuri, Bilintz, Xalbador eta abarren bertsoz osaturiko saioa emaitza ohi dute. Fardidurik, algarrik eta negar malkoak sor arazten dituzte bertsoen bidez.

Jendea oso pozik geratzen da leku guztietan bertso saio honetan.

Ekainaren 22an, hots, hil honen 22an izango da Larunbat honetan eta gaueko 10etan, «Lasarte» zinean.

### IKASTOLA

Ari da jendea ikastolarako izena ematen. Dagoeneko haur mordoxka dago izena emanik datorren ikastarorako. Izango ote dugu nahiko leku sartu nahi duten haur guztientzat?

Negargarria litzateke lekurik ezagatik haurrak kanpoan geratzeko. Baina ez dira irakaskoak eta lekukoak peribitukoak bertan bapatzen sortzen. Horregatik da beharrezko aldeaz aurretik, izena ematea.

### AZKORTE

## beasain

### JAI NAGUSIAK

Aurtengoak ere iraganak ditugu. Eguraldiak bi arratsalde lasotu zituen arren, ospakizunik gehienentzat lagundu duela esan dezakegu. Urteoroko haurren danborrada, ohi-turazko kirol saioak, elizkizun, lantza-saio, argazki eta margozki lehaketak eta abarretatik itenez gero, aurtengo ikuskizunak nabarmenak bezala ondorengo hauek aipa daitezke:

- Txanton Piperri euskal opera.
- Emakumeen futbol partidua.
- Moto-cross lehiaketa.
- Hitzaldiak.
- Dantza libreko lehiaketa eta euskal musika tresnen agerpena.
- Idazlelehiaketa eta Azoka.

●Txanton Piperri-ri buruz, esan beharra dago, Arrasateko Bandak azken agurra gure herrian egin zuela. Euskal Opera hau, abesteko prestatura Arrasatearrek eta horrela eskaini zituzten. Alde honek itxaropenak, ez antzesteko alde irudikatzen, irudia galdugazko uzten du eta gaitz berbitzen jaten. Hala ere aurrez adierazten zuten (zergatik esanpaieraz?) gaia nondi-norka zihonan eta gaitzerdi. Bestalde, aretoa ez dago noski musikalarik antzestokiaren aplikaziotan jartzeko prestetia eta horik bada, entzuleengana abeslariaren hitzak baino musika hobe biki helitzea. Abeslari baktariak nahiko itota gertatzen ziren nahiz eta gozo abestu. DANOK abesbatzak ongi bete zuten ber ekitokoa. Musika berriz oso ederra du opera honek baina halere erdizka bete zen Usurbe zinema. Sarrearen preziozkoak ote? Edozein dantzalekutan 100 pta. baino gehiago ez ote du jendeak ordaintzen abesti arruntagoak entzuteko?

●Emakumezkoen (nesken) futbol partiduak berealdiko arrakasta izan zuten. Hiru bat mila ikusle inguratu zuten. Eguraldiak ere lagundu zuenik, emakumezkoek eskainirik eguna zirudien lehiak harek; «Majorettes» deritzenak alde baretatik, futbolariak besteik, eta giza-kume gehiegi izterrak nondik ikusiko... «Majorettes» derilakoek buruz, aurre zuten aho bete hortzkein gelditua, gaztetxoak eta haurrak etorri zirelako. Futbolariak buruz, kirol honetan ere ongi jokatzeko (gizonezkoak baino garbiago behintzat) prestatuak daudela erakutsi zuten emakumezkoek. Bizkaiko Sondiarrak indartsu agertu ziren eta bi oorduz jokatuak 3-1 irabazi zieten Lapurdi aldekoek. Zorionak eta aurrera!

●Aurten baita ere, abaztuzko gendekuan lehiaketa bat berritu da: Moto-cross alegia. Berez ikusidun ikuskarria delarik, hala gerta-

tu ere zen. Herritarrek ziren esku hartu zuten gehienak eta oro har-turik Telleria txapelidun. Zorionak! Tamalez ordea, antolamendu kas-karra naharmendu zen astearte eguerdiz jaien antolatzaileei dago-kienez. Dantzariak dantza egin on-doren, herriko txistulariak saio ederra eskaini bide zuten baina on-doreneko bertolariak izendatutak zudelarik. Moto-cross-aren garaia heldu eta jakina, bertolariak zire-nik ere nola ezin pentsa zitekeen hango antolamendua ikusita, jende guztia motorrak ikustera joan! Ez aurkeppen eta ez antolamendu akats izugarria dugu hau eta ber-tolari laioaren batek kantatua izan behar zuenez itxura eta papera eg-ilekotan ez ekartzea hobe noski, bes-tela «amaren ume sobraduen» an-terza ibili eta bertso sena lehen ahula hadugu dugun apurra gaitze-ko sistima horiekin ez Beraz, honi dagozkionez badiu zertan ondurik aurtengo jai nagusien komisioak (audaletxeok noski).

●Hitzaldietan izana da jendea baina beteakidarik ez. Nahi zukeen areto hura bete hiruretan ere, bai-na chun bat lagunetik gora gehiegi-rik ez eta ingurumarike herrietatik entzuleak bazirela kontuan hartuz gero, ez da ezer asko. Kexka gutxi du jende euskaldunak eta berarik laburak. Ez dut hemen bakoitzean atzerketa egiterik baina gaia-k eta hizlariak interesgarriak izanek dira eta heuren alorak jorratuak izan behar dituzte jakin ahal izan dudanez, neuk ez bainuen izan joa-terik.

Une honetatik aurrerako ospa-kizunak beste giro batetan bizitu genituen inguruko gertakizunen on-dorioak zuten zerikusia gatik. La-ru-bateko jaialdia ez zen nik lehen aurretz apatua nuen, hots, bertso zaharren abestia. Abesti berri eta abestiari herriarriego jaialdia izan bi-de zen. Hasten direnei atek ireki behar zaizkietarik ere, zerbait hel-duagoa itxaro bide zuten jendeak.

●Igandea berriz, alala zen an-tolaketak aldetik. Goizean euskal ereski tresnen ihardun bikaina ka-le —kale eta enparantzan. Arra-tsaldaz, Loizak futbol zalaian ja-toriki. Lehenik Goierriko txistulari hieldun saioa eta txalaparta. On-doren, dantza libreko txapelketa. Zortzi bikotek esku harturik honela banatu ziren sariak:

- 1.na Zaldibarko Alkorta lehen-gusiel (8.000pta. eta txapela bana).
- 2.no Hernaniko Sarriegi-Lope-tegi bikoteak (6.000pta.).
- 3.na Arabako Imanol eta Aran-tzari (4.000pta.).

●Ondoren, Tolosako Uda-berri taldeko dultzainerok Nafarroako zenbait doinu bitxi eskaini zuten. Goierri dantza-taldeak ere berak moldaturiko bi dantza eskaini zi-tuzten. Politik eta jatorrak egi-rituz, Muxikitarra joleak ere ihar-dun zuten eta bukaera Aurtza, Sakabi eta Epelide trikitilariak eman zuten.

●Tarteak, II USURBE elabe-ri sariketaen berri eman zen. Gi-puzkoako Aurrezki Kutxa Probin-tzialak honetarako eskainirik 25.000 ptako saria Luis Haranburu Altunarentzat izan zen «Harrobiko andrea» deitu lanagatik. Oheorez bi aipamen ere egin ziren gaia-k zehar berriak itzategatik, bata lehe-nari berari bere «Marian» lanaga-tik eta besteak Patxi Sansinene-ri «Zeruan eten odirik» lanagatik. Lau izan omen ziren aurkeztuak eta apai-mahaina Xabier Kintana eta Anjel Lertxundik osatu omen zuten.

- Baita ere eman zen 8 eta 9 urte-ko haur-arte onaspatutako idaz-lehiaketaren berri. Hona berriak:
- 8 urtekoetan:
- 1.n Markel Olano.
  - 2.no Jose Felipe Azurmendi.
  - 3.n Itziar Landa.
  - 4.n Lurdes Herrera.
- 9 urtekoetan:
- 1.n Patxi Lasa
  - 2.n Mikel Sarriegi.
  - 3.n Lierni Lasa.
  - 4.n Ana Intxausti.

### ZORIONAK GUZTIEI

●Ondoren, Kalejira alalak he-rrian zehar lehen aipaturiko tres-na-jole guztiekin. Egia esateko, jen-de gutxi izan zen Loizak zelaian, beste urtetakoa kontuan hartuz gero. Egitarauagatik ote?, edo eta gertakizunak sorturiko geroagatik? Aztertzeak izanen da noski beste urte batetarako ere... Diodan bes-talde, ozenkaila edo altabozak ja-

rrri zituena egin ohi dituen hain-bat huts eta akats egin zituela. Az-ka-ri buruz berriz, leku ezkutuegia-n eduki da (beti ezin bada aukera-koan) eta jendea ez da gehiegi kon-turatu ez arduratu. Azkeneko la-ru-bat-iganadeko egutimuan, beste ziri-riak ere nabari da Udaletxe-ko jai-batzordearen aldetik. Larunbat gure herria eta igande goizean, Galizako «Añirios d'a Terra» tal-dea ibilia da gure herria. Ez dugu ezer gailogean aurka, baina euskal giroko egutimari horiek ekartzea be-ra ere, gurea baxterri eta arrotza-ri atea irekitzea da. Era berean, txi-rindularien lehiaketa herri barruan izatea, berez ederra den arren, na-hi aldea da txistulari eta dantza-ri alardeak direnean jartzea. Gheh-garri bezala, aurtun diru gutxiago eman bide diote Gazteen Biltzar-ri Jakintza Astea antolatzeko. Eus-kal gauzak izan behar ditugu mer-katuak nonbait, gahontzeakoez-zean edo... Garbi dakusagu Uda-le-txe-ko zenbait sizenen jokabide alor honetan. Herriarriena denari ala arrotza denari eman hiru urte-ko antolatua aurrea? Urrengo urtera-ko antolatu behar dena ongi anto-latzea eskatuko nieke eta bide ba-rez geurearientzat lehenen lekua. Dagoenari dagoikoma degokion garai eta lekuan. Besterik ez.

### MURUMENDI

## lezo

### KAMIOAK

Ez dakit inork sinetsiko duen, baina San Juan Bideko lanak hain berriak dira; hain ikusi dugu azken egunotan, kuxkara itxurako grua hoietako bat jo ta ke. Lurrak erri-ri zirenean konponetak bi edo hila-betetan bukatuko zituztela esan zen, baina beldur naiz gutxienez beste hainbeste lutzatuko ez ote diren. Ez dedila hala gerta!

Bestalde, aurrekoan kezkatutik banegonean ere, ez dira Altzoko bide-gurutzea alde batetik bakarrik zabalzearekin kontentatu eta Alta-mira aldetik lurrak mugitzen ikus-ten badirudi zeharo konpondu eta behar bezala utzi nahi dutela. Ez genuen gutxiagorik espero.

### BAZKOAK

Badago zer aipaturik; programa eskuartean hartu besterik ez dago. Nik dakidanez, behintzat, Lezon lehenengo aldiriz aurtengo bazkoton egin da euskaraz (halaxe dago) eta hau albiste ezin interesgarriagoa iruditzen zait. Bazen garaia, ze arraioli; ez da gauza asko, baina ezer baino gehiago. Baina euska-razkoa eta erdarazkoa aparte egi-ta egokiago litzatekeala uste dut, biak aldamenean daudela gehienok, zoritxarek, erdarazkoa irakurtzeko jator izanik, euskaraz irakurtzen berehalekoan ohituko ez garelako; baina hau bigarren mailako gauza da.

Lezon bertan inprimatua izan da lruen egiteko mania itxuraz baz-tertuz.

Festa-batzordea ere bestetan ez bezala osatua izan da, herriko el-karteetako arduradunak ere tartean izan bait ditu. Gainera, zenbait fes-ta, hauek zuzenki antolatutak izan dira, hala nola: toka, haur-dantza-askatu lehiaketa, pelota partidua, bertolariak, haurjolasak, eta beste.

Honok festa hauek izan ditugu: buru-handi eta Allernuko txistula-rien kalejaria (hiru aldiriz), Domo-tiako Kontsebatorko Alkordoi Or-kestra, dantza (bi aldiriz), fanfara, toka, haur-dantza-askatu lehiaketa, «tiro pichón» eta «tiro al plato» delakoak, pelota partidu, bertola-riak eta haur-jokak.

Ez dira beste munduko gauzak, ez eta huskeriak ere, Santakrute-tarako gauza onik asko espero du-gu eta orain ikasiak egingo eta hu-tsak beteketo dituztelekono nago.

Dudarik gabe, hies gehiago izan-go dira, baina sumatutako bat adie-raziko dut: bazko bigarrenean, eguerdikoa hamabietan, jende gutxi izaten da kalean, erretiratuak eta eziz; gehienok lanean izaten gara edo laneratzeko bazkalzen eta pre-tatzatzen; egoera honetan, bertola-ri saioa sartzea, tartea nolaz bete ez jakiteagatik besterik izen liteke izan, eta dudarik gabe, bertolariak bes-te toki bat merezi dute; zergatik

ez igandean, eguerdian edo; eta zergatik ez dira ingurutatik haurrak beste alde batera baidalten jostatu nahi badute, bat baino gehiago has-ten bait da ernegaturik Herodesen letaniak errezatzen.

Puntu eta gai-jartzailea, izan gi-nen bitartean, Mitxelena eta Liza-soren neurriko agertu zen.

Jendea, berriz, eruz bildo da, la-ru-bat gaurer batez ere; kanpoko jende asko, eta oker ez banago (eta ez nago) Limoren adiskide ugari. Eguraldia oso ona. Ez ditu-gu gaizki pasa.

### ARGIA

Ekainaren 1.az geroztik, Argiaren Andre Mariaren egunean hain zu-zen (bere mirari hoietako bat izan ote da?), argi berria dugu. San Juan, Zubitxo eta Kale Nagusian. Egundaino ez gera ohitu eta ez zaigu geure herrian gaudenik iru-ditzen, baina egia omen da.

Hau argitasuna, lehengoarekin konparaturik bederen; ez bait ge-nuen aurretik zotorrena muturka jo artan sumatzen.

Kosta bada ere, lortu dugu kale hauetan beharrezko argitasuna. Orain, gure ametsa egia bilakatu dutenik, zorionekin batera, zera es-katu nahi diet, alegia, orain artean argi-bonibilak zintzilik eduki dituz-ten poste txar hoik lehenbaitlehen kentzeak eta baita, beste bide eta kale kehiago oraindik nahiko ilun direla gogoratu ere. Hau dena, lor-tuko dugulakoan, noski.

### SISTIAGANEKO PELLOK

## errezi

### J. M. BERISTAIN

Danok dakigu, erri bateko albis-tan izateak zer lan eta gora-beerak dituan. Lan gogorra, zaila, astuna eta askotan mingarria. Ta lan ori gogoragoa, zailagoa, astunagoa eta mingarriagoa izaten da erri txi-ki bateko albisatek eman bear iza-ten diranean, danok elkar ezagutu eta bizitza bat egiten degulako. Edo berri gutxi sortzen danean. Bai-ñan, guk, EUSKARA maite degu-nok, eta Euskal-herria ere bai, gau-za oiek ahaztu eta lanari gogotsu ekiten digu.

Eta, gaurko onetan, aspaldi o-ne-tan, ao guztietan dabilen gauza nai degu ekarri, Z. A. asteroko o-ne-tara. Alegia, pelotariaren bigarren mailako txapeliduna, aurtun, erre-zildar bat degula. JOAN MARI BE-RISTAIN.

Ondo baino obetago gogoratzen degu egun ura. Apirilak 18 zituan. Arratsaldeko 7.30 inguruan, gure belarriak irati baten ondoan jarri genituen, IRUINE-ko LABRIT frontoira joan ez gilaenok. Bagu-nan, bai, joateko asma, baiñan, az-ken orduko eginkizun batek gale-raziz zugu.

Badira «ERNIO-ARRI» talde onetan bertolari jator eta itzak ondo uztartzen dituztenak, eta par-tidua bukatu eta egun batzuetara, onokoxe bertso auek moldatu zi-tuan batek.

—1—  
Apirilaren emezortzian ziran Iruiñan jokatu. Berandu gababizta iguzu barkatu.

Ogei ta bi ta ogei ta bat zen partidua bukatu. Baiñan orain nai zaitut biotzetik besarkatu.

—2—  
Joan Mari Beristain degu mutil jator errezi-darra. Anker bigun, buruz ona anker berriz azkarra.

Oiek eta gelago an irabazteko bearra. «Txitxan» kontrarioa zuan Estelako naparra.

—3—  
Zu bezelakorik ez dago emen inguruan inun. Egria bai zera pelotari gazteen txapelidun.

Zuk ere bai eta guk ere ori nai gendun. Jarrai zaitetz aurrera ere orain bezela EUSKALDUN.

—4—  
Emen daukagu eginik gazteen txapelidun berri. Irabazi ondoren, zuri, txapela zizuten jarri.

Guk opatzen dizuguna da urtetean eutsi orri. GORA PELOTA, GORA ERREZIL ETA GORA EUSKAL-HERRI.

Guk, ez daukagu besterik esateko. Gure bertolariak esan diz-kigu esatekoak. Bakar-bakarrik, barkatzeko eskatu, lantxo au heran-du bidali baino baderu.

Aurreko lanak izan ditugu eta. Urrengoan gelago eta obetago. Beste bat arte.

### ¡ZORIONAK JOAN MARI!

## pasai donibane

### ZIGORRA ZERUKO ARGIARI

Ordago ederra bota diote Z. AR-GIA asteroko honi, arranoak; izan ere, 25.000 pezetako zigorra ez da ahuntzaren gaurdiko ezula, horre-gatik Diruz doi-doi dabilen aste-roko batentzat, nahiko zama astu-na eta urteko ekonomia desegiteko adina.

Zigorra edo multa honen arra-zioak ez dakien irakurleak, ikus be-za Maiatzaren 19ko alea eta hain irakur ditzaite agintarien zioak edo multibak.

Zigor hau ordaintzeko asmoz, di-ru-laguntza eman dugutenean eta har-pide edo suskitore egin direnek, lerro hauen bidez, har bezate gure eskerrik beroena.

Zuk, irakurle, ahal duzun neu-rrian lagundu nahi baduzu, San Juan kalen 102garren zenbakian dagoen dendan utz dezakezu zeure laguntza.

### HERRIKO-ETXEARI

Gure herriko festak eta baita inguruko herriakotak ere, aurki di-tugu. Herriko-Etxeak argitara izan dituen egitarauak edo programak, txoi erderaz izan dira orain arte. Gehiegi eskatzea izango ote li-tzateke euskaraz ere argitaratzea? Ea bada!

### TERRANOBATIK

Aurtengo lehenbiziko bakailotako baporeek deskargatu zituzten jian den astean. Ojeda etxeokoz ziren. Zoritxarek ez dira leporalari be-teak zetozeleko sartu; bapore hoie-tako bat, Terranoban bertan, suak hartu eta estu-estu ibilia izan de-lako baizik. Lurralde haletatik erre-moikean ekarri behar izan zuten. Zoronez, ez da ezberharik gerta-tu eta honek pozutuzten gaitu bene-tan.

### ANTXOKO ASTEA

Ekainaren lehengo astean, Euskal Aste bat antolatu zuten. Antxoko zenbait gaztek «Lore-Txorta» Elka-tearen laguntzapean, Euskal aste izanik, euskaraz-erdera nahaste bo-rraste batean programaturik zegoen; nahiz-eta hitzaldi batzuk euskaraz emanak izan, erderaz antolatuturik ere bazen. Izan ere, hain biltzen ginenok, euskaldunak bai ginen.

Angel Lertxundiren hitzaldia en-tzuteko Irrikatzen geunden; baina zer gertatu zen ez dakigularik, sus-penditu egin zen.

Azkeneko egunean, mahai ingu-rua izan zen ikastolako zenbait ira-kasleak parte hartzen zuenarik. Gaia: «Euskaraz-ikastola». Ez ginen lagun gehiegi bildu (25 edo 30ren bat). Gehienak gazteak. Gure buaien bo-ta ezin genuen grina txarra genera-bilen: «Non demontre daude gure ikastolako haurren gurasok? Non daude ikastolako Batzorde edo Di-rekitiba osatzen dutenak?».

Hitzaldi hauek ospatzen ziren ga-rai berean, Pasai Antxoko fron-toian palazko partiduak izan dira. Frontoia leporalari betea. Hitzaldi-etan berriz 20, 25, 30ren bat lagun biltzen ginen.

Aste honen baimena lortzeko, na-hiko larri ibiliak omen dira; azke-neko momentu arte ez zitzaizen iri-txi.

Ez urrenko batetako, EUSKAL as-te hau EUSKARAZ antolatzen du-zuen; izan ere, EUSKAL kultura bat lortzeko, EUSKARAZ behar bai du-gu oinarritu.

### INALURETAK

# EUSKAL HERRIKO ELIZAZ ARTIKULU BAT

Zeruko Argian, nere azken lantxoan, Espainiako aldizkari batetan zetozen artikulu biren laburpena eman nuen.

Harrez gero, Euskal Herriko Elizari zuzen-zuzenean eskainia, beste artikulu bat ikusi ahal izan dut. Hau euskaraz emana. Ipar Euskal Herrian argitaratzen duten «Zabal» (7. zenb., maiatza-ekaina/74) aldizkari argian.

Lehen partean, Eliza osoari buruz, ikuspegi nagusi eta laburra ematen da; egungo Elizan diren joera nagusiak alegia: 1) Elizaren erakundea hauztuaz ipintzea; Elizaren diru-indarra, aginte politikoa, ideologia salatzea; 2) demokrazia gehiago eskatzea; tokian tokiko elizak behar direla, apaiz kastakaria hautsi beharra, apaiz tipokera bat baino gehiagoren beharra 3) Elizaren sozialismoa erroak botatzen hasia dela egiaztatzen da.

Bigarren partean, Euskal Herriko elizaren egoerari ukitzen dio autoreak zuzen-zuzenean. Dударik gabe, parte honi deritzaguz interesgarriena. Baina, dagoeneko irakurtzekoa da; bestela, arraz antzaldaturik eta soil-durik beharko genuke eman. Ze, eliza ere, nahi eta ez, egoera politiko bati loturik bait dago; nola edo hala. Eta elizaren egoera agertzekotan, egoera politikoa beharko bait litzateke agertu, gure autoreak, bestalde, egiten duenez.

Halere, ezin utzi dut Paulo Iztuetak, autoreak, harrotzen duen zenbait puntu alpatu gabe:

A) Aldatzen ari den herria da gurea, eta zenbait alderdi nagusitatik borrokan ari dena.

Gure herri honetan Elizaren jokabidea ez da hari bere-berekoa. Eliza-gizon deituen artean, batzuk gehiago murgildu dira herriaren premia gorrietan; bestek gutxiago; aurka ari izanak ere hor nonbait direla, dio autoreak. Halere, aldaketarik nabari du autoreak eliza-gizonen artean, eta herrian murgiltzearen aldera.

Halatan, sekularizatzen ari den klero honen baitan, bereizketa bat egiten du:

a) giza eskuidean aldeko Eliza, batetik, Egia, dotrina, talde horrek bere esku bide du. Gaitik behera mintzo da. Pulpititik.

b) Elizaren egitura soziologikoak gupidarik gabe salatzen dituen taldea. «Elez kapitalista eta erdirakoiaren salaketa egiten da».

d) «Apaiz ministeriorik ez» dioten taldea. «Sekularizazioak orain (1970 etika-edo agertu omen den taldearentzat) apaizgintza uztea esan nahi du».

Azkenik, gauro egoerak eskatzen duena proposatzen du:

1) Indar bizi eta aurreratzaileekin batera jokatu beharra;

2) Fededunak, zientziari orain arte baino gehiago lotu behar izanik ere ez dezake utz gizonaren etorkizuna zientziaren eskutan bakarrik;

3) Fededunen Elizak ez du erakunde politiko izan behar. Hemen, «Herri Gaztedi»-ren prolema planteatzen du autoreak: «kristau elkarte edo mugimendu bat al da? Hala bada, testiga beza; eta ez bada, utz dezala izen hori».

4) «Errukizko obrak eta hontarak eraturi, Jauden eleiz erakundeak ez dira on, baldin horiek mixeri eta injustiziaren kausak mantentzen badituzte...».

5) «Fedearen testigutzan sinest dezaten, lehenik herritarrek garaia behar dugu frogatu».

6) Jakin dezagun herri sufrutuekin sufitzen.

AITORTZA... NOLA EGIN?

Badira oraino Aitortza nola egin proposatzen zaitasunik ikusten ez dutenak. Diodanaren frogaz bezala,



Hori baino preparazio gehiago izango zuten noski...

Donostiako eliza batetan, lehen jaunartza zahoazen haurrei, aitortzabide bezala, honako hau proposatu zaie aurretik; idazkera aldatzen dut soilki:

I. Agur Maria.

II. Gaur lehenengo aldiz aitortzen naiz. (Edo... zortzi egun dira azkeneko aldiz aitortu nintzela).

III. Azkeneko aitortetan, hobea danak aitortu nituan.

IV. Orain, azterketa egin dut, eta nik egindako hobekak hauek dira:

1. aginduaren kontra: goiz-arratseko otoiak ez ditut egin.

2. aginduaren kontra: biraoak eta hitz itsusiak esan ditut.

3. aginduaren kontra: igande eta jai egunetan ez dut mitzarik entzun.

(eta horrela ematen dira hamar aginduen kontrako bekatuak, eta amaiteko): eta beste hobekak egin dudarik, ez naiz gogoratzen. Eta orain, zuri, —nere Aita On Zuzendari— hobea-nekea eta bedelkapena eskatzen dizkizut.

Pentsatzen dut, hori baino preparazio gehiago izango zutela haur horiek. Bestela, ez dut ikusten zein barkapen zentzu ukan dezaketen. Dena den, munitik gabeko ritualismoa hutsera eragiteko bide egokia azterketa modu horiek.

Alabaina, kontzientzia lasaitzeko era aproposa arduradunentzat: bideak urratzen ari beharrik ez, eta inongo polemari ez norberaren gainera. Eta gainera, norberak legea eginez gero, «legea» betetzen ez dutenak madarikazioz betetzeko eskubide osoa.

AMUNSA

## ELIZ OTOITZA GAURKO EUSKALERRIAN

Apaiz eta erlijiosoen zatik ikastaroa

### HITZALDIAK

Jabier DIHARCE - IRATZEDER - OSB.

Bellokeko Abata.

Otoitza gaurko Euskaldunen artean.

Paulo AGIRREBALZATEGI, OFM.

Erromako Antonianum-en Irakasle. Tolosa.

Otoitza elkar biziartean.

Lino AKESOLO, OCD, Markina.

Otoitza Euskal literaturan.

Itaki ONATIBIA, Apaiza.

Gasteizko Teologi ikastetxe nagusian Irakasle.

Eliz Otoitza berritzen erabilitako burubide nagusiak.

Errupin Muxika, OSB, Lazkano.

Eliz Otoitzaren kondaira eta zatiketa.

Isidor BAZTARRIKA, OSB, Estibaliz.

Eliz Otoitza eta Eukaristia. Teologi eta lege aldetik azterketa.

Eliz Otoitza eta bilinguismoa gure erlijioso elkartean.

Emiliano OZAETA, OSB, Estibaliz.

Bibliako testuak Eliz Otoitzaren eraketan.

Eliz Otoitzari buruz konzilio ondoko lege edo rubrikak.

Itaki ERAUSKIN, Apaiza, Donostia.

Musikaren garrantzia liturgia eta Eliz Otoitzean bereziki.

Martin LASA, La Salle, Irun.

Eliz Otoitzari buruz eta euskeraz egiteko agertu diran lanak.

Pedro NUNEZ, SSS, Deusto eta Gasteizko Teologi ikastetxe nagusietan Irakasle.

Salmoen kondaira eta esanahia.

Salmo berriak sortzeko bideak.

Agustin APAOLAZA, OSB, Estibaliz.

Salmoen kristautasuna.

Salmutegi berria. Egindako lanaren azalpena.

Zuzentzeko burubideak.

Salmoen estruktura jatorria eta Eliz Otoitzean erabiltzeko irizpideak.

Juan Maria LEKUONA, Apaiza, Donostia.

Olerki aldetik salmoen azterketa.

Eugenio AGIRRETXE, OFM, Bilbao.

Eliz Otoitza gure Pastorealean.

Joan OTAEGI, SSS, Probinziala, Bilbao.

Euskal erlijiosoen lortu nahi genituzkeen jomuga batzuk.

### TALDE BATEK

Nola ikusten eta egiten den otoitza gaur Euskalerrian eta munduan zehar. Azalpen eta esperientziak.

### ASMOAK

Gure asmoa euskaldunak beren eliz-otoitza EUSKERAZ egitea da, erlijiosoen elkartean behinik behin.

Otoitzari buruz munduan dabillen joera berriaz arduratuko gara.

Ikastari honek bi hitzaldi nagusi eta beste bi txosten txikiagoak izango ditu egun bakoitzean. Elitzizun batzuk egingo ditugu ere, nahiz taldea, nahiz herriarekin batean. Aisialdeko azkeneko bi orduak edo libre izango dira norberaren lanerako.

### ORDAINKETA

Bertan arte artzeko ordaintza 400-(laurun)-peztakoa izango da. Horrekin eskubide izango da hitzaldi eta elkar laneko eta baita SALMUTEGI berria ale bana norberak artzeko ere.

Ikastaro garaian Oinatin bertan gelditu nahi dutenek egunean -200-pesta ordaindu behar dituzte.

### NON ETA NOIZ

### OINATI

1974 - UZTAILAREN - 8-13

Beneditar Lekainean Etxean

Tf. 78.11.54 (943)



YOGUR  
**GURELESA**  
GOGOZKOENA



**JOSE ZINKUNEGI' BEN**  
**OPTICA BERRIA DONOSTIA**

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA

**ayestaran**

**DONOSTIA**

BURNI - SALGAIK

Urbilata, 25

ELECTRODOMESTICOS

ETXERAKO ELEKTRO-

TRESNAK

Urbilata, 27 - Isabel II, 2

RAILITE

LEGEZKO


ZABALTXAILEA

Aldonasa, 4

Urrutizkifak:

44308 ta 426787





## LOREAK


San Juan loreak margaritak dira. Egun hontan etxe aurre guzia, lorez estaltzen zuten gure aurrekoek. Gero, gaixotasunen bat, sorginen bat edo tximista, haruntz «tipi-tapa» abiatzen bazen, lore haiek bidea moztzen omen zioten. Eta ez omen zen etxean sartzen.

## URA

San Juan goizean, iturri asko bisitatzen dira. Bertan, larru gaixotasunen bat dutenak, ura edan edo garbitu egiten dira. Toki asotan, iturri hoiek, lorez apaintzen dituzte.



Baziren bi ume beti lotan zeudenak. Amak esaten zien: jeiki... ordua da eta. Baina, Ikastolara joan behar eta, ez zuten jeiki nahi izaten. Orduan amak esaten zien: Ikastolara ez bazarete joaten tontuak izango zarete. Orduan, asko kostata jeiki eta Ikastolara joaten ziren erdi lotan. Urte guzia erdi lotan pasa zuten eta... ba ahal dakizue zer gertatzen zitzairen horrela ibiltzeko? Ba... San Juan egunean siesta egin omen zuten eta esaerak dioen bezala urte guzia lo pasa zuten.



Jon KORRAL

## SAN JUAN ENI GABE, URTEA OGI GABE



Ez da ezergatik, baina gauza bat jakin dut.

Amarako parkeak kendu eta aparkalekuak egin behar dituztela. Ze parra!

Non ibilliko gara gu jostatzen? Nere iritzia, hemengo patioetan zakar guziak kendu eta parke polit batzuk egitea da. Baita futbol zelai txiki bat ere. Nere gurasoei entzun diet, firmak bildu eta alkateari bialdu behar dizkiotela.

Amarara lehen zirkoa eta orain feriak etorri dira. Ferietan gauza asko daude: tiobiboak, latigoa, txutxu trena, balantza, noria eta abar. Nik uste dut ferietako tokia, piska bat txukundu beharko luketela; baita prezioa piska bat jetxi ere. Orain amar pezetan dago eta garestia iruditzen zait. Feriak hemen denbora gutxi egoten dira.

Lizeo Barandiaran bukatzen ari dira. Oso toki politean dago, eta jolasteko ere, toki asko dago. Lizeora joango diren haurrak, Jakintza, Zurriola, Orixe, Martutene eta Ikas-Bide ikastoletaokak izango dira. Lizeo hortan basikako 6. kursotik 8. arteko ikasketak emango dira.

marrazkiak XN ZABALETA

